

# Etxarri-Aranazko dotrina. Sakana ekialdearekiko alderaketa

JOSÉ LUIS ERDOZIA MAULEÓN\*

## 1. ETXARRI ETA UHARTEKO DOTRINEI BURUZKO ZENBAIT DATU

**B**onaparte Printzearen aginduz idatzitako bi dotrina hauek, XIX. mendeko 60ko hamarkadan izan ziren sortuak, eta aipatu printzearentzat oso garrantzitsuak ziren bere ikerketa dialektologikoak burutzeko, izan zitekeen itzultzaileari buruzko argibideak emateaz gain ordaintzeko prest eta guzti agertu zelarik beharrezkoa izanez gero, Uhartekoaren kasuan bederen, Bruno Etxenikeri igorritako eskutitz-zatian (Parisen, 1864ko abenduaren 31) irakur daitekeen moduan:

*Je crois cependant que pour compléter ma collection il me faudrait, si c'est possible, pouvoir obtenir un catéchisme dans le basque de Huarte-Araquil, et un autre dans celui d'Araiz, ou de Larraun ou de Basaburua. Etxarri-Aranaz représente assez bien le basque de la vallée d'Araquil, mais les euphories ou changements euphoniques de cette localité sont plutôt ceux de la Borunda; de sorte qu'il forme la transition du borundais à l'araquilais que je considère comme deux variétés distinctes du guipuscoan parlé dans la Navarre. A Araiz, à Larraun et dans les deux Basaburuas, au contraire, ce serait encore du navarrais mêlé de guipuscoan. C'est donc en définitive les catéchismes de Huarte-Araquil et de Araiz qui manqueraient encore à ma collection. Comme il s'agit de pays compris dans la ligne vraiment basque, il pourrait bien se faire que quelque curé ou quelque maître d'école voulût bien se charger de ces traductions pour lesquelles j'irai jusqu'à cent francs si cela était nécessaire. Je laisse le pour tout entre vos mains. (J. Urquijo, 1910, 284)*

\* Ertainetako irakaslea.

Azterketa hau egiteko ‘Bonaparte Ondareko Eskuizkribuak’<sup>1</sup> (BOE hemendik aurrera) erabili ditut, beraz, obra honetan agertzen diren bi dotri-  
nak jarri ditut aurrez aurre.

Etxarrikoari dagokionez, bi eskuizkribu daude: bat, “Catecismo en el dia-  
lecto de Echarri-Aranaz. Traducción de D. Esteban de Zabala. Un cuaderno”  
izenburuarekin; eta bestea, Bruno Etxenike<sup>2</sup> Bonaparteren laguntzaileak itzu-  
litakoa. Azken hau da osorik agertzen dena eta Bonapartek bere ikerketeta-  
rako erabili zuena, eta nik ere hauxe izango dut kontuan, Uhartekoarekin  
alderatzeko orduan.

Hala ere, esan behar da, Esteban Zabalarenak dituen desberdintasun guz-  
tiak, ohartxoan bidez jasoak daudela ‘Etxarri-Aranatzeko dotrina’ren 1993ko  
edizio honetan. Eskuizkribu hau, 1864an egin zuen Etxenikek, edo hobeto  
esanda, Bonapartek urte honetan jaso zuen, Etxenikeri aipatu urteko azaroa-  
ren 7an, Londonetik bidalitako eskutitzan hala esaten baitu:

*Mon cher Monsieur Echenique,  
J’ai reçu les traductions d’Urdiaïn et d’Echarri-Aranaz. Elles m’ont fait le plus  
grand plaisir; car le travail ne peut pas être mieux fait, surtout celui  
d’Urdiaïn. (J. Urquijo, 1910, 279)*

Edonola ere, artikulua honen bukaeran ikusiko dugun moduan, ez du  
dotrina honek Etxarriko hizkera inondik inora islatzen, eta hauxe bera esan  
du K. Zuazo ikertzaileak:

*Txukun eta aratz daude, egon, bi kristau-ikasbideok (Etxarri eta  
Urdiaingoaz ari da), baina ez dute inondik inora islatzen herri bi horietako  
hizkera. Aitzitik, gipuzkerara hurbiltzen ahalegindu zirela itzultzaileak –edo  
moldatzailea– ematen du, Bonaparteren asmo eta helburuei batere jaramo-  
nik egin gabe (‘Burundako hizkera’, ASJU, 1995, 358).*

Uhartekoaren kasuan, eskuizkribu bakarra da, eta 28 orrialdez osaturik  
dago. Ez dakigu nork itzuli zuen, baina irakurri besterik ez da egin behar  
garbi ikusteko ondo ezagutzen zuela bertako hizkera (... *il pourrait bien se  
faire que quelque curé ou quelque maître d’école voulût bien se charger de ces tra-  
ductions*, hauxe da Bonapartek berak 1864ko abenduaren 31ko eskutitzean  
Etxenikeri esaten ziona). Ez dakigu zehatz-mehatz noiz egin zen itzulpena,  
baina badakigu 1865eko urtarrila eta hurrengo urteko apirilaren artean izan  
zela, berriro ere Etxenikeri igorritako eskutitzak irakurriz uler daitekeen beza-  
la. 1865eko urtarrilaren 18koan, esaten du Araitz, Uharte, Zaraitzu eta  
Erronkariko dotrinak soilik falta zaizkiola nafar bilduma osatzeko, eta  
1866ko apirilaren 12koan, berriz, dagoeneko eskuan ditu, bi lehenengoak  
behinik behin, baina ez daki ziur Araitz eta Arakilgo zein herritakoak diren,  
hots, gure kasuan, Uharte-Arakilgoa bertakoa den ala ez:

<sup>1</sup> Deustuko Unibertsitatea, 1993 (2957-2993 Etxarri-Aranatzeko dotrina); 1995, (601-633 Uhar-  
teko dotrina).

<sup>2</sup> Horrela diote BOE-n (1993, 2957): *Beste eskuizkribua, 207 zenbakia duena aipaturiko katalogo-  
an, alegia, eta Urdiaingo dotrina esku berak idatziak dira, Bruno Echeniquek idatziak, alegia. Letra eze-  
zik, paperaren formatoa eta ezaugarriak ere berdinak dituzte; eta banaketa ere berdina-lehenengo  
orrialdetik hasi eta azken orrialderaino.*

*Je désirais bien connaître le nom de la localité de la Vallée d'Araiz à laquelle appartient le catéchisme ainsi que celle de la vallée d'Huarte-Araquil. Dois-je considérer ce catéchisme comme l'expresion du basque du village même d'Huarte-Araquil, ou bien comme celle du basque d'une autre localité de cette vallée? (J. Urquijo, 1910, 294)*

Uharteko bertako hizkerarenganako atxekimenduari erreparatzen badiogu, oraingo honetan bai esan daiteke ongi islatzen dela, berriro ere artikulu honen bukaerako azalpenez gain, beste bi ikertzaileen burutazioak irakur daitezkelarik jarraian:

*Bestelakoa (Etxarri eta Urdiaingo dotrinekin konparatzen ari da) da Uhart-Arakilgoan azaltzen den jarrera, zuzenago islatzen da eta honetan herri horretako hizkera mintzatua (K. Zuazo, 'Burundako hizkera', ASJU, 1995, 358) Nork idatzi zuenari buruz zera esan dezakegu, egileak Uhart-Arakilgo hizkera ederki asko ezagutzen zuela, irakurtzean baiezta daitekeenez, bertako semea izan zitekeelarik (J. M. Arakama, 'Uhart-Arakilgo dotrina', ASJU, 1994, 569)*

## 2. ARAKILGO SERMOIAK

Jose Maria Satrustegik argitaratu ditu F.L.V.-ren azken zenbakian (81) hiru sermoi hauek, eta egilea ezezaguna bada ere Arruazun jaso dituela esaten digu eta “*ez dut uste auserdia denik testu hauek Arakilgo euskaraz idatzirik daudekela esatea*” (F.L.V. 81, 1999, 343) ondorioztatzen du aipatu sermoien berri emateko argitaraturiko artikuluaaren sarreraren azken zatian. Hiru sermoiak, alfabetoaren lehen hiru hizkien bidez agertzen dizkigu: A, ‘Sermón q. Trata del aprecio del alma’; B, ‘Sermón que trata del Dulce Nombre de Jesús’; C, ‘Sermón de la Purísima Concepción’. Eta bukaeran, sermoietan erabilitako hitzen hiztegia paratu du Arruazuko euskaltzainak.

## 3. ARTIKULUAREN NONDIK NORAKOAK

Bonaparteren euskalkien sailkapenean halako garrantzia<sup>3</sup> izan zuten bi dotrina hauek izango ditut kontuan, lehena, Etxarrikoa, aztertzeo asmoa nagusi delarik, eta azterketa hori gauzatu nahian, bestearekin, Uhartekoarekin, alderatuko dut, aurrerago esaten nuena, hots, honek ederki islatzen duela bertako hizkera (Uhartekoa bereziki, eta baita Sakana erdialdekoa ere, maila batean) frogatzeko, eta hark, aldiz, ez duela horrelakorik egiten.

Eta nahi hori betetzeko asmoarekin, horretarako, pare-parean jarriko ditut bi dotrinak, beste hainbeste zutabetan eta, erdian, Etxarrikoaren moldaketa, bertako hizkerara egokiturikoa. Moldaketa hau neuk egin da, gaur egun Etxarrin entzuten den hizkera erabiliz horretarako, eta modu honetan bi kontu azpimarratu ahal izango ditut:

- Alde batetik, dotrinako hizkera eta egungo etxarrieraren arteko desberdintasuna.
- Eta bestetik, Uharteko dotrinako hizkera eta etxarrieraren arteko antza (Etxarrikoan egingo dira ohartxoak, baina ezkerraldera begiratu, ederki ikusi ahal izango dugu aipatu antza horixe).

<sup>3</sup> Sakanako hizkerari dagokienez, zalantzarik gabe.

Bestalde, argitu behar dut ez ditudala bi dotrina osoak hemen agertuko, nahikoa iruditu baitzait, lagin moduan, bospasei orrialde baino ez azaltzea, ezaugarri aipagarrienak etengabe errepikatzen baitira bi dotrinetan zehar.

Hala ere, bukaeran, dotrina bakoitzak testu osoan zehar agertzen dituen berezitasunak aipatuko ditut, eta aipatu bospasei orrialdeetako oharxoak, berriz, behin bakarrik azalduko ditut hitz berdinak direnean, ondorengoetan, hau da, errepikatuak diren gertaeretan, soilik hizkuntz gertaera aipatuko dudalarik.

Horrela beraz, eskuin aldeko zutabeen Etxarriko dotrinaren lehen sei orrialdeak jasoko ditut, hau da, BOE-n (1993) 2959-2964 bitarteko orrialdeak, biak barne; ezker aldeko zutabeen, berriz, Uhartekoaren ordaina, hots, BOE-n (1995) 602-607 bitartekoak, kasu honetan ere biak barne direlarik; eta azkenik, erdiko zutabeen neronek egungo etxarriera erabiliz egindako moldaketa.

Arakilgo sermoiei dagokienez, hauen azterketa dialektologikoa egiteaz gain, Sakana erdialdeko hizkera, hego-goi-nafarrera, eta lapurterarekin alde-ratuko ditut, ondorio dialektologikoak atera nahian, Satrustegik berak aipaturiko nafarrera-gipuzkera arteko muga-hizkeraz at, goi-nafarreraren beraren ipar-hego mugaren zubi-lanak egiten ote zituen ikusiz.

#### 4. DOTRINEN ALDERAKETA

##### UHARTEKO DOTRINA

*Gurutze Sanduberen sine-  
liengati gure etsayetati libra-  
gachazu gure Juane et Jan-  
goycoa. Amen. Aiteren eta  
Semieren eta Espiritu San-  
duberen icenien. Amen.*

##### ETXARRIKOA MOLDATUA

Guutze santubaañ señelien-  
gati guu etseyetati (*etseyen-  
gandi*) libra gaitzazu guu  
Jaun(e) ta Jangoikue. Aitta-  
an da Semieen da Espiritu  
Santubaañ izenien. Amen.

##### ETXARRIKO DOTRINA

*Gurutze santubaren<sup>4</sup> seña-  
liã gatic<sup>6</sup> gure etsayetatic<sup>7</sup> li-  
bra gaitzazu gure Jaun<sup>8</sup> ta  
Jangoicua<sup>9</sup>. Aitaren<sup>10</sup> eta Se-  
miaren<sup>11</sup> eta Espiritu Santu-  
baren<sup>12</sup> icenian<sup>13</sup>. Amen.*

<sup>4</sup> Bokal berdín zein desberdinen arteko dardarkari xamurraren erorketa ez da gauzatu, ez hitz honetan, ez aurrekoan.

<sup>5</sup> /i/ bokalak eragindako asimilazioa falta zaio bi aldiz: sabaiko sudurkariaren ondoren eta hitz bukaerako disimilazioaren (-ea > -ie) ondorengo, *señeliẽ*. Uhartekoan, aldiz, bai eman da aipatu asimilazio aurrerakaria.

<sup>6</sup> Motibatiboan, Etxarri eta Sakana erdialdeko hizkeran, bukaerako belare herskari ahoskabearen galera gertatzen da, *señeliengati*. Ikusten denez, Uhartekoan ere, horrela gertatzen da.

<sup>7</sup> Ablatiboan ere galdu egiten da bukaerako -k, oraingoan ere Sakana erdialde guztian, eta asimilazio atzerakaria (*ai* > *ei*) gauzatu gabe agertzen du, *etseye* da, beraz, etxarriean. Uhartekoan, ez da gauzatu asimilazio atzerakaria, baina bai bukaerako belare herskari ahoskabearen galera.

<sup>8</sup> -a > -e / i,uC\_. Asimilazio aurrerakariaren kasuan gaude berriro, baina kasu honetan kontsonantez bukatutako lexemekin. Azken silabako bokala goikoa denean, morfema mugatzaileko bokala itxi egiten da (*jaun* + -a > *jaune*, *egur* + -a > *egurre*) Sakana erdialde osoan mugatzaile pluralaren morfema eransten zaionean (*lapurrek*, *aitzurrek*), eta Etxarri, Lizarraga, Lakuntza eta Uhartean mugatzaile singularren morfemaren kasuan ere bai (*lapurre*, *jaune* aipatu lau herri hauetan, eta *lapurra*, *jauna* Dorrau, Unanu, Arbizu eta Arruazun). Uharteko dotrinan *Juane* agertzen da (akats baten ondorioa izango da ziurrenik gorunzko diptongoa beherunzkoa bihurtzearena), eta ikusten denez asimilaturik dago azken bokala.

<sup>9</sup> -oa > ue bihurtzen da Etxarri, salbuespenik gabe: *Jangoikue*.

<sup>10</sup> Bokal arteko dardarkari xamurraren galera, V<sub>1</sub> V<sub>2</sub> > V<sub>1</sub> V<sub>1</sub> eta hortzetako herskari gorraren bus-tidura beharko lituzke: *aittaañ*.

<sup>11</sup> Dardarkariaren galera eta -ea- > -ie. Uhartekoan, bigarren gertaera gutxienez ematen da.

<sup>12</sup> r-ren galera eta V<sub>1</sub> V<sub>2</sub> > V<sub>1</sub> V<sub>1</sub>. Hala ere, bi dotrinetan agertzen da -u-ren ondorengo -b- konsonante epentetikoaren agerpena.

<sup>13</sup> ea > ie. Uhartekoan agertzen da.

*Aite gurie.*

*I. Aite gurie Cerubetan zaudena santifica bedi zure icena, vetor guregana zure erreñube, eguin bedi zure borondatie Ceruben becela lurrien ere. Egun iguzu guri gueren egunoroco oguiye, barca dazquiguzu guri gueren zorrac, guc gueren zordugunei barcatcen tyogun becela, ezgatchazule uci tentacion erortcera, baicic libragatchazu gaitz gucietatic. Amen.*

*Ave Maria.*

*II. Ave Marie gracias betie Juane da zurequin, bedicatube zu cera andre gucien ertien eta vedicatube da zure sabeleco frutube Jesus.*

*Santa Marie Jangoycoarenama zuc erreguzazu gu*

*Aitte gurie.*

*Aitte gurie zeruten zaudena, santifiketube izen dayela zuu izena, etor dayela guregana zuu erreñube, ein dayela zuu bondatie zeruben bezela lurrien dee. Eman zazu gui geen egunioko ogiye ta barka zaskizu gui geen zorrac, guk gee zordunai barkatzen doogun bezela, eta ez gaitzazula utzi tentaziyeuen eroitzen, beye libre zazu gui geitzetik.*

*Ave Marie.*

*Ave Marie grazies betie, Jaune da zuuki, beriketube zaa zu andre guzien artien ta beriketube da zuu sabeleco frutue Jesus.*

*Santa Marie Jangoikuen ama, erreza zazu gu beka-*

*Aita Guria<sup>14</sup>.*

*Aita guria cerubetan<sup>15</sup> zaudena, santificatuba<sup>16</sup> izan bedi zure icena, betor guregana zure errañuba<sup>17</sup>, eguin bedi zure vorondatia<sup>18</sup> nola ceruban<sup>19</sup> ala lurrian<sup>20</sup>. Egun iguzu guri gueren<sup>21</sup> zorrac, guc gueren zor dunai barcatzen diegun<sup>22</sup> bezala<sup>23</sup> eta ezgaitzazula utzi tentaciyuan<sup>24</sup> erortzen<sup>25</sup>, baicic libra gaitzazu gaitzetic<sup>26</sup>. Amen.*

*Ave Mariya<sup>27</sup>.*

*Ave Mariya graciya<sup>28</sup> betia<sup>29</sup>, Jauna da zurequin<sup>30</sup> bedicatuba<sup>31</sup> zu cera<sup>32</sup> andre guciyen<sup>33</sup> artian<sup>34</sup>, eta bedicatuba da zure sabeleco frutuba<sup>35</sup> Jesus.*

*Santa Mariya Jangoicua-  
ren<sup>36</sup> ama, erregutu zazu gu*

<sup>14</sup> Bokal asimilazioa eta bustidura: *aitte*. Uhartekoan asimilazioa ere bai.

<sup>15</sup> Inesibo pluralean ez da /b/ kontsonante epentetikorik tartekatzen, nahiz eta *u-z* bukatu mugatutako lexema: *zeruten*. Kasu honetan bi dotrinetan egin da era okerrean.

<sup>16</sup> Asimilazio bikoitza falta zaio: *santifiketube*.

<sup>17</sup> Asimilazio atzerakaria eta aurrerakaria falta zaizkio: *erreñube*. Uhartekoan biak izan dira kontuan.

<sup>18</sup> *r*-en galera,  $V_1 V_1 > V_1$  eta bukaerako bokalaren itxiera: *bondatie*.

<sup>19</sup> Asimilazioa falta da: *zeruben*. Uhartekoan ederki.

<sup>20</sup> *ea > ie*. Bai Uhartekoan.

<sup>21</sup> Hitz honetan eta aurrekoan *r*-ren galera ez da gauzatu, ez batean, ez bestean.

<sup>22</sup> *doogun* esango litzateke. *-erau-* eta ez *-i-* dugu  $NN_i N_k$  erako adizkien erroa Etxarrin, eta hauze izango litzateke bere bilakabidea: *\*derauogu > \*deauogu > \*deoogu > doogu*. Bukaerako *-n* hori moduzko esaldiarena litzateke (*-n* bezala).

<sup>23</sup> Asimilazioa: *bezela*. Uhartekoan bai.

<sup>24</sup> *oa > ue*.

<sup>25</sup> Bokalen arteko dardarkariaren galera gertatzen zaio, *eroi* dugu, beraz, aditza Etxarrin, eta horrexegatik: *eroitzen*.

<sup>26</sup> Asimilazio atzerakaria falta da, eta bukaerako *k*-ren galera.

<sup>27</sup> *i-z* bukatutako lexemen modura, /y/-ren epentesia jarri zaio, eta Maria ez da *i-z* bukatzen. Uhartekoan, asimilatu gabe, baina behar bezala epentesiaren arazoa.

<sup>28</sup> Aurrekoaren kasu berbera, eta gainera asimilatu gabe azken bokala. Uhartekoan behar bezala.

<sup>29</sup> *ea > ie*. Uhartekoan bai.

<sup>30</sup> Ez da *r*-ren galera,  $V_1 V_2 > V_1 V_1$  eta bukaerako *n*-ren galera gauzatu: *zuuki*. Uhartekoan ere ez.

<sup>31</sup> *dlr* txandaketa eta bukaerako bokalaren asimilazioa falta dira. Azken gertaera bai, gutxienez, Uhartekoan.

<sup>32</sup> Etxarriko forma *zaa* (< *zara*) dugu, beraz gipuzkeratua genuke aditz forma hau bi dotrinetan.

<sup>33</sup> *e-z* bukatutako hitz baten aurrean gaudenez (*guze-guzie*), *ea > ie* bilakaera behar du jaso: *guzie*. Uhartekoan bai.

<sup>34</sup> *ea > ie*. Uhartekoan bai, *ertien*, bada ere.

<sup>35</sup> Etxarrin *frutue* esaten da, *o-z* bukatutako lexemen modura: *oa > ue*. Hala ere, *-u-z* bukatuz gero, Uhartekoan bezala beharko luke: *frutube*.

<sup>36</sup> *Jangoiko + aren > jangoikueren* (*oa > ue*) > *jangoikueen* (*r*-ren galera) > *jangoikuen* ( $V_1 V_1 > V_1$ ) bilakabidea du Etxarrin.

*becatariongati orañ eta beti gueren erioceco orduben. Amen.*      *tayoongati guai ta guu il-tzeko orduben. Amen.*      *becatariyen gatic<sup>37</sup> orain<sup>38</sup> eta gure erioztzeco orduban<sup>39</sup>. Amen.*

*Credoa.*

Kredue.

*Credud<sup>40</sup>.*

*III. Nic siñestacendut Jangoyco Aita guztis poderoso, Ceruberen eta lurreren criadorearen baiyen, arren seme bacar Jesu Christo gure jaunaren baityen, ceñ concebiyu baicen Espiritu Sanduberen obras ta virtutes, jaiyocen Ama Virgine-rengandic, padecityuzuen Pontcio Pilatosen podorien azpiyen gurutzificatuzuten, illzuten, enterratu zuten, jaitchicen Ynfernuetara, andic irugarren egunien erresucitatučen illen arteti, igancen Ceruetara, an dago jarriric bere Aita guztis poderosoaren escubietaco al-*

Nik siñistetzen det Jangoiko Aitte erabat poderosue zerubaan da lurraan kreadorien beitten, eta arren seme bakarra Jesukristo guu Jaunaan beitten, zein konzebittu zan Espiritu Santubaan obras ta birtudes; jeyo zan Marie Birjiñaangandi; padezittu zeen Ponzio Pilatosen poderien azpiyen, kruzifiketube, ille eta enterratube izendu zan; jatxi zan infernutaa, resuzitetu zeen illen arteti irugerna egunien itzoo zan zerutaa, an doo jarriik Jangoiko Aitte erabat poderosuen eskubiko aldien, andi

*Nic siñistatzen det Jangoico Aita guciz<sup>41</sup> poderoso cerubaren<sup>42</sup> eta lurraren criadoria, eta aren<sup>43</sup> seme bacar Jesucristo gure Jaunagan<sup>44</sup>, cein, contzebitu<sup>45</sup> zan Espiritu Santubaren obras eta virtutes; jayo<sup>46</sup> zan Mariya Virgina gandic<sup>47</sup>; padecitu zuen<sup>48</sup> Pontzio<sup>49</sup> Pilatosen aguintiaren<sup>50</sup> azpiyan<sup>51</sup>; izandu zan gurutzificatuba, illa eta enterratuba<sup>52</sup>; jatchi zan infarnubetara<sup>53</sup>, resucitatu<sup>54</sup> zan illen artetic<sup>55</sup> irugarren<sup>56</sup> egunian igo<sup>57</sup> zan cerubetara, an dago jarriric<sup>58</sup> Jangoico Aita guciz poderosuaren alde es-*

<sup>37</sup> Bukaerako *-k* eta *r*-ren galerak eta plural hurbilaren erabilera falta zaizkio aldaera honi. Uhartekoan ederki jaso da dago.

<sup>38</sup> *-oa-* bokalen arteko kontsonante erorkorrek sortutako bilakabidea dugu Etxarrin hasierako *g*-erabiltzearena, *guai*, eta horretaz gain, bukaerako *\*-ani* > *-ai* bilakabidea.

<sup>39</sup> Asimilazioa falta da. Uhartekoan bai izan dute kontuan.

<sup>40</sup> *oa* > *ue*. Uhartekoan ere ez.

<sup>41</sup> Ez da erabiltzen partikula hau, erabat baizik, eta erabiltzekotan, bukaeran *-s* eramango luke, Uhartekoan bezala.

<sup>42</sup> *r*-ren galera eta  $V_1 V_2 > V_1 V_1$  falta zaio hurrengoan bezala: *zerubaan, lurraan...*

<sup>43</sup> Etxarrin eta esparru osoan, *arren/arrilarrek...* dira erakusleen hirugarren graduko formak. Ongi berriro Uhartekoan.

<sup>44</sup> *-(r)en beitten* (-ren baitan) da norengan kasuaren morfemaren ordeztze erabiltzen dena, eta Uhartekoan horrela jarri dute.

<sup>45</sup> *l, n, r* ondoren txistukari igurzkariak erabiltzen dira Sakana erdialde osoan: *konzebittu*. Uhartekoan horrela egin dute.

<sup>46</sup> Asimilazio atzerakaria egiten da Etxarrin: *jeyo*.

<sup>47</sup> Bukaerako *-k* galtzen du eta ablatiboaren morfema erantsirik doa.

<sup>48</sup> Aditz nagusiak bustidura darama, eta laguntzailearen forma zein da, ondorengo delarik bere bilakabidea: *\*zeuen* > *zeen* (-eu- izango litzateke  $NN_k$  erako aditz laguntzailearen erroa).

<sup>49</sup> *l, n, r* ondoren txistukari igurzkariak erabiltzen dira.

<sup>50</sup> *ea* > *ie* berriro: *agintien* (< *\*agintieen* < *\*agintieren* < *agintearen*), *poderien* (< *\*poderieen* < *\*poderieren* < *poderearen*).

<sup>51</sup> Asimilazio aurrerakaria, hurrengo hitzean bezala.

<sup>52</sup> Azken hiru hitzak asimilazioa gauzatu gabe ageri dira, eta lehenak ez du bokal epentesirik behar: *kruzifiketube*.

<sup>53</sup> Adlatiboaren pluralean ez da /b/ kontsonante epentetikorik sartzen.

<sup>54</sup> Asimilazio aurrerakaria falta da.

<sup>55</sup> Bukaerako *-k* kontsonantearen galera, Uhartekoan egin den moduan.

<sup>56</sup> Forma sinkopatua erabiltzen da Sakana erdialdeko esparru osoan.

<sup>57</sup> *Itzo(o)* erabiltzen da esparru osoan.

<sup>58</sup> Bokal berdinen arteko dardarkariaren galera falta zaio: *jarriik*.

*dien, andic etorco dela viciyec eta illec juzgacera. Nic ala siñestacendut Espiritu Sanduberen baityen, Eliza Ama Santa Catholicuan, Sanduben Comunionan, becatuben barcacioan, araguiyaren erresurreccion eta vicitce seculecuan. Amen.*

Salbe.

*IV. Jangoycuac salbacechale Erreiñe, misericordieren Ama, vicice, dulzure eta esperanza gurie, Jangoycuac salbacechala, zure deyes gaude Ebaren ume desterratu-bec, zuregana gaude suspirios, sentimentus eta negarres, negarres-co balle onetan; hea bada gure Abogada, izulichazu gure gana zure vegui misericordioso oyec, eta destierro onetatic guacen orduben eracusizaguzu zure sabeleco frutu veditatube Jesus; O Clementissima! O Piadosa! O dulce Virgiñe Marie! Erregutuzazu guregati, Jaungoycoa-ren Ama Santa, merecidezagun erdeistie Jesuchristoren ofrecimen-tubec. Amen.*

etorkua biziyek ta illek juzgetzia. Nik ala siñistetzen det Espiritu Santubanan beitten, bekatuben barcakiyuen, aragiyaan resurreziyuen, eta bizitze sekulekuen.

Salbie.

Jangoikuek salba zaitzala, erreñe, misericordian ama, bizitze, dulzure ta esperanza gurie. Jangoikuek salba zaitzala, zui otseiñes gaude Ebaan ume desterratubek; zugana suspiros, sentimentus ta negarres, negarraan balliontan; iye baa, guu Abogada, buelta zaskizu gugana zuu begi misericordiosuok, eta destierroantati atiatzen gaanien yakus zazu gui Jesus zuu sabeleco frutu be-deinkatube. O klementissima! O piadosa! O Marie Birjiñe dulzie! Erreza zazu gugati Jangoikuen ama santa, Jesukristoon promesak lortzie meezi ziaun

*cuitic<sup>59</sup>, andic etorriko<sup>60</sup> da viciyac eta illac juzgatzerat<sup>61</sup>. Nic ala siñistatzen det Espiritu Santubagan, becatuben barcaciyan<sup>62</sup>, araguiyaren resurreciyan, eta vicitza seculacuan. Amen.*

Salvia.

*Jangoicuac salva zaitzala, erreguiña, misericordiyaren ama, vicitza, dulzura ta gure esperantza. Jangoicuac salva zaitzala, zure dayez<sup>63</sup> gaude Evaren hume desterratubac; zure gana suspiroz, sentimentuz, eta negarres negarrezco valle onetan<sup>64</sup>; ea bada, gure Abogada, itzuli detchazu gure gana zure begui misericordiezco oyec<sup>65</sup>, eta destierro onetatic<sup>66</sup> ateratzen gueranian<sup>67</sup> eracutsi<sup>68</sup> eguzuzu Jesus zure sabeleco frutu bedicatuba. O clementissima! O piadosa! O dulce Virgiña Mariya! Erregutu zazu gure gatic Jangoicuaren ama santa mereci dezagun erdeistid<sup>69</sup> Jesucristoren promesac. Amen.*

*V. Jangoycoaren legueco mandamentu sandubac di-*

Jangoikuen legeko mandamentubek die amar.

*Jangoicuaren legueco mandamentubac dira<sup>70</sup> amar.*

<sup>59</sup> Posposizioa atzean beti: *eskubi(ko) aldien*.

<sup>60</sup> Partizipioetako *-i* bokalaren sinkopa falta zaio, ez ordea Uhartekoari: *etorco*.

<sup>61</sup> *-t(z)era > t(z)ia* bihurtzen da Sakana erdialdean: *juzgetzia, eittia* (egitera), *jatia* (jatera), ... Era berean, adlatibo singularreko morfema kontsonantez edo *-e-z* bukatutako lexemei eransterakoan: *lurria* (lurrera), *etxia* (etxera), *balkonia* (balkonera), *lezia* (leizera)...

<sup>62</sup> *oa > ue*.

<sup>63</sup> Instrumentalean *-s*, hurrengo lerrotan bezala. Nola nahi ere, ez da esparru osoan *dei(tu)* erabiltzen, *otsein* (hots egin) baizik.

<sup>64</sup> Erakusleak mugatzaile moduan burutzen dira sandhi-etan: *balliontan*.

<sup>65</sup> Aurrekoan bezala.

<sup>66</sup> Berdin.

<sup>67</sup> Forma gipuzkeratua agertzen zaigu, Etxarrin *gaanien* (garenean).

<sup>68</sup> *e-* eta kontsonante erorkorraz hasten diren hitzen burutzapena egin behar da: *yakusi, yaman* (eraman), *yaniaun* (herenegun), *yosi* (erosi), *yon* (egon)...

<sup>69</sup> Ez da esparru osoan *erdietsi* aditza erabiltzen, *lortu* edo *konsegittu* baizik.

<sup>70</sup> Aditz forma hau ere asimilaturik eta dardarkaririk gabe agertzen da Etxarri, Lizarraga, La-kuntza eta Uharten.

<p><i>re amar. Lenbico irurec Jaungoaren onrrari perteneccien daizquionac, beste sazpiec progimoaren probechubari.</i></p> <p><i>Lendaiscua, Jaungoycoa amacie gauce gucien gaiñen. Bigarrna juramentu banuan ez eguityie.</i></p> <p><i>Yrugarrna, jai egunec santifiquetzie</i></p> <p><i>Lagurne, guratsuac eta zarragocuac onrratcie.</i></p> <p><i>Bosgarrna, iñor ez ilcie.</i></p> <p><i>Seigarrna, lujuriego becatu-ric ez eguityie.</i></p> <p><i>Zazpigarna, ez ebastie.</i></p> <p><i>Zortzigarrna, falso testimonioric ez goratcie et ez guezurric esatie.</i></p> <p><i>Bedracigarna, vesteren viciquideric ez deseietzie.</i></p> <p><i>Amargarrna, Jangoycoa ematain yuen ones eta ondasunec contentacie.</i></p> <p><i>Amar mandamentu sanduboc encerracendire vietara: serbicetie eta amatie Jaungoycoa gauce gucien gaiñen, eta progimua gueren burube becela.</i></p> <p><i>VI. Articulo fedescuac.</i></p> <p><i>Articulo fedescuac dire hamalau.</i></p> <p><i>Lendabico zazpiec dibinda-diari perteneccien daizquionac, beste sazpiec Je-</i></p>	<p>Lenbiziko irurek pertenezitzen dazkiyo Jangoikuen onrai, ta beste zazpiyek projimuen probetxubai.</p> <p>Lenbizikue, jangoikue nei izetie gauze guzien geiñen. Bigerna, juramentube alperrik ez eittie.</p> <p>Írugerna, jei egunek santifiketzie.</p> <p>Laugerna, aitte ta ama onratzie.</p> <p>Bosgerna, iyore ez iltzie.</p> <p>Seigerna, lujuriego bekatuik ez eittie.</p> <p>Zazpigarna, ez ostutzie.</p> <p>Zortzigarna, falso testimonioik ez jasotzie ta gezurrik ez esatie.</p> <p>Bedratzigarna, projimuen andreik ez deseietzie.</p> <p>Amargerna, besten gauzaik ez deseietzie.</p> <p>Amar mandamentu boik biten enzerraten die, Jangoikue gauze guzien geiñen serbittu ta nei izetie, eta projimue geen buube bezela.</p> <p>Fedesko artikuluek hamalau die.</p> <p>Lenbiziko zazpiyek pertenezitzen dazkiyo dibinideici, eta beste zazpiyek guu</p>	<p><i>Lembico irurac pertenezitzen daizquiyó<sup>71</sup> Jangoicuaren honrari, ta beste sazpiyac progimuaren provetchubari.</i></p> <p><i>Lembicua, Jangoicua amatzia gauza gucien gaiñan<sup>72</sup>.</i></p> <p><i>Bigarrna<sup>73</sup>, juramentu alferric<sup>74</sup> ez eguitia.</i></p> <p><i>Írugarrna, jai<sup>75</sup> egunac santificatzia<sup>76</sup>.</i></p> <p><i>Laugarrena, aita ta ama honratzia.</i></p> <p><i>Bostgarrena, iñor<sup>77</sup> ez iltzia.</i></p> <p><i>Seigarrena, lujuriyaco becatu-ric ez eguitia.</i></p> <p><i>Zazpigarrna, ez ostutzia<sup>78</sup>.</i></p> <p><i>Zortzigarrna, testimoniyo falsoric ez jasotzia, eta guezurric ez esatie.</i></p> <p><i>Bederatzigarrna, progimuaren emazteric ez deseietzia.</i></p> <p><i>Amargarrena<sup>79</sup>, bestén gauzaric ez deseietzia.</i></p> <p><i>Amar mandamentu auec entzerraten<sup>80</sup> dira bitan, servitziari eta amatziari Jangoicua gauza gucien gaiñan, eta progimua gueren buruba bezela.</i></p> <p><i>Articulo fedescuac dira hamalau.</i></p> <p><i>Lembico zazpiyac perteneccitzen daizquiyó divinidadiari, eta beste sazpiyac</i></p>
---	--	---

<sup>71</sup> Oraingoan, bi dotrinen kasuan ongi erabilia NN<sub>1</sub> erako aditz laguntzailearen erroa, -ki-: *dazkiyo* (zaizkio), *dakit* (zait)...

<sup>72</sup> Asimilazio atzerakaria.

<sup>73</sup> Forma sinkopatua behar da, hurrengo ordinaletan bezala.

<sup>74</sup> *ffp* txandaketen arteko *p*-ren aldeko suertatzen diren gutxietako bat Etxarriko hizkeran.

<sup>75</sup> Asimilazio atzerakaria.

<sup>76</sup> Uhartekoan berriro, ongi daude jasoak bi asimilazioak.

<sup>77</sup> Etxarrin erabiltzen den forma *iyor(e)* (inor (ere))da.

<sup>78</sup> *Ostu* da esparru osoan erabiltzen den aditza, eta *ez ebatsi* Uharteko dotrinen agertzen den moduan.

<sup>79</sup> Ikusten denez, desberdinak dira oso dotrina bateko eta besteko burutzapenak. Hala ere, oraingoan berriro, Uhartekoan bertako hizkera ederki gordetu da: sinkopa, asimilazioa, aditz forma...

<sup>80</sup> *l, n, r* ondoren txistukari igurzkariak erabiltzen dira.



<i>suchristoren umanidade sandubari pertenecei-cen daizquionac.</i>	Jaune Jesukristo Jangoiko eta gizon egieskuen umanidede santu-bai Dibinidediei pertenezitzen dazkiyonak oik die..	<i>gure Jaun Jesucristo Jangoico ta guizon eguiyazcuaren humanidade santubari. Divinidadiari perteneceitzen daizquiyonac dira auec.</i>
<i>Lendaiscua da siñestacie Jangoycoa dela guztis poderosua.</i>	Lenbizikue, siñistetzie Jangoi-ko erabat poderoso bakar batien.	<i>Lembicicua<sup>81</sup>, siñistatzia Jangoico guciz poderoso bakar batian.</i>
<i>Bigarrna da siñestacie</i>	Bigerna, siñistetzie Aitte dala.	<i>Bigarrena, siñistatzia dala Aita.</i>
<i>Jaungoycoa dela Aita.</i>		
<i>Yrugarrna da siñestacie Jaungoycoa dela Semie.</i>	Irugerna, siñistetzie Semie dala.	<i>Irugarrena, siñistatzia dala Semia.</i>
<i>Laugarrna da siñestacie Jaungoycoa dela Espiritu Sandube.</i>	Laugerna, siñistetzie Espiritu Santube dala.	<i>Laugarrena, siñistatzia dala Espiritu Santuba.</i>
<i>Bosgarna da siñestacie Jaungoycoa dela Criadorie.</i>	Bosgerna, siñistetzie kreadorie dala.	<i>Bostgarrena, siñistatzia dala Criadoria.</i>
<i>Seigarrna da siñestacie Jaungoycoa dela Salbadorie.</i>	Seigerna, siñistetzie Salbadorie dala.	<i>Seigarrena, siñistatzia dala Salvadoria.</i>
<i>Zazpigarna da siñestacie Jaungoy-coa dela Glorificadorie.</i>	Zazpigerna, siñistetzie Glorifikadorie dala.	<i>Zazpigarrena, siñistatzia dala Glorificadoria.</i>
<i>Umanidade Sanduberenac dire auec</i>	Umanidede santubai pertenezitzen dazkiyonak die oik.	<i>Humanidade santubari perteneceitzen daizquiyonac dira auec.</i>
<i>Lendaiscua, da siñestacie Jesuchris-to gure Jaune guizona den partetic concebiyube hicendu cela Espiritu Sanduberen obras eta virtutes.</i>	Lenbizikue, siñistetzie Jesukristo guu Jaune gizona dan aldeti konzebittube izendu zala Espiritu Santubaan obras ta birtudes.	<i>Lembicicua, siñistatzia Jesucristo gure Jauna guizona dan partetic contzebitu zala<sup>82</sup> Espiritu Santubaren obras eta virtutes.</i>
<i>Vigarrna, da sinestacie jayo cela Virgiñe Marieregandi gueldicen cela Virgiñe jayo baño len, jayocien eta jaiyo esquero.</i>	Bigerna, siñistetzie jeyo zala Santa Marie Birjiña-angandi, andriau birjiñe zala Kristo jeyo beño len, jeyotzien da jeyo eskios.	<i>Bigarrena, siñistatzia jayo zala Santa Mariya Virgiña gandic, señoora au zala virgiña Cristo jayo baño<sup>83</sup> len, jayotzian eta<sup>84</sup> jayo es queros<sup>85</sup>.</i>
<i>Yrugarna, da siñestacie errecebiyu zuela eriyioce eta pasioa gu eta mundu gucie salbaciegati.</i>	Irugerna, siñistetzie rezibittu zittubela eriyotza ta pasiyue gu bekatayok salbatzietis.	<i>Irugarrena, siñistatzia recibitu cituala<sup>86</sup> eriotza ta pasiyua gu becatariyac salvatzia gatic.</i>

<sup>81</sup> Uhartekoan agertzen den forma, *lendaiscua*, Etxarrin ere entzun daiteke, zertxobait aldaturik: *lendazikue*.

<sup>82</sup> Uhartekoan agertzen den era pasiboa egokiagoa izango genuke horrelako itzulpenetarako. Eta era pasibo horretan, partizipio analogiko bat agertzen da, *hicendu* (izan + -du), oso gertaera erabilia Sakana erdialdean: *izendu*, *ibildu* (ibil(i) + -du), *yondu* (egon + -du), *jakindu*...

<sup>83</sup> Asimilazio atzerakaria: *beño*.

<sup>84</sup> Juntagailu kopulatiboa sudurkariaren ondoren doanean Etxarrin, normalean, *da* izaten da.

<sup>85</sup> Denborazko esaldiak eraikitzeke Sakana erdialdean erabiltzen den era bat: *partiz. + eskios* (-ez gero).

<sup>86</sup> *u* bokalaren ondorengo kontsonante epentetikoa, hortzetako herskari ahoskabearen sabaikaripena eta asimilazioa falta zaizkio. Ondorengo formak erabiltzen dira Sakana erdialdean: *zittuben/zittubuen/zittuen* (zituen). Uharteko dotrinan ere horrela agertzen da hogei eta hogeitabi lero beherago: *ciyuben, eciyuben*.

<p><i>Laugarna, da siñestacie chaichi cela Ynfèrnuetara, arren etorriera sanduberen espera zauden anima justuac libratu eta consolacera. Bosgarrna, da siñestacie erresucita-tu cela illen ertetic irugarren egunien. Seigarna, da siñestacie iyen cela Cerure eta an dagola jarriric Jaungoyco Aita guztis poderosoaren escubietaco aldien. Zazpigarna, da siñestacie andi etorco dela viciyec eta illec juzgucera, auda onai emanen dio vere glorie cergati guardatu ciyuben arren mandamentubec, eta gaiztoai seculoco pena, cergati guardatu eciyuben. Cristau dotriñeren declaracioa galdetcen eta errespondacen dela. Galdetcen dut, cristaube zara? Errespondacen dut. Bai, Jaune, Jaungoycoaren gracias. G. Cristauberen icenori nundi duzu? E. Jesucristo gure Jauneren gandi. G. Cer esanai du Cristaubec? E. Cristoren guizona. G. Cer entendacen duzu Cristoren guizonas? E. Cristoren fedie confescen duenac, cein errecibiyu bazuen bautismo sanduben</i></p>	<p>Laugerna, siñistetzie jatxi zala infernuta, ta arren etorrera santubaan espia zeen anime justuek libretu zittubela. Bosgerna, siñistetzie resucitatu zala illen arteti irugerna egunien. Seigerna, siñistetzie itzoo zala zerutaa, eta jarriik doola Jangoiko Aitte erabat poderosuen eskubiteko aldien. Zazpigarna, siñistetzie etorkuala biziyek eta illec juzgetzia, au da, onai glorie ematia zengati arren mandamentubek gordetu zittuben, ta geiztuei seculoko penak zengati ezittuben gordetu. Kristaubaan dotriñaan deklaraziyue galdein da yaantzuten dala. Galdeitten det. Kristaube zaa? Yaantzuten det. Bei jauna, Jangoikuen grazies. G. Kristaubaan izenoi nundi izendu ziñuben? E. Kristo guu Jaunaangan-di. G. Ze esan nei dau kristaubek? E. Kristoon gizona. G. Ze entenditzen dezu Kristoon gizonetako? E. Kristoon fedie deen gizona, bateyetzekuen rezibittu zeena, eta arren ser-</p>	<p><i>Laugarrena, siñistatzia jatchi zala infarnubetara, eta arren etorrera santubaren espera zauden<sup>87</sup> anima justuac libratu cituala. Bostgarrena, siñistatzia resucitatu zala illen artetic irugarren egunian. Seigarrena, siñistatzia igo zala cerubetara, eta dago jarriric Jangoico Aita guciz poderosuaren alde escuitic. Zazpigarrena, siñistatzia etorrico dala viciyac eta illac juzgatzera, au da, onai ematera gloriya cereit<sup>88</sup> arren mandamentubac gorde cituan, eta gaiztuai seculaco penac ceren gorde etzittuen. Cristau dotrinaren declaracijua galdetzen eta erantzuten dala. Galdetzen det. Cristaue cerra? Erantzuten det. Bai jauna Jangoicuaren gracias. G. Cristauren icen ori noren gandic izan cenduen<sup>89</sup>? E. Cristo gure<sup>90</sup> Jaunaren gandic. G. Cer esan nai<sup>91</sup> du<sup>92</sup> Cristauec? E. Cristoren guizona. G. Cer entenditzen dezu Cristoren guizona gatie<sup>93</sup>? E. Cristoren fedia duen guizoana, cein recibitu zuen batayatzian, eta da-</i></p>
---	--	--

<sup>87</sup> *zeen* da Etxarrin 'egon' aditzaren pluraleko hirugarren partsonaren forma, eta *zoon* singularrekoarena, hauek izan daitezkeelarik forma hauen bilakabideak: \**zegon* > *zeon* > *zoon* singularrekoa, eta \**zegoden* > \**zeoden* > \**zooden* > \**zoden* > \**zoen* > *zeen*.

<sup>88</sup> Ez da erabiltzen kausazko partikula hau ez Etxarrin, ez Sakana erdialde osoan, *zeengati* (zerengatik) baizik, Uhartekoan ikus daitekeen moduan.

<sup>89</sup> *-i-dun* formak erabiltzen dira Etxarrin lehen aldian NN<sub>K</sub> erako adizki laguntzaileetan: *giñuben* (genuen), *ziñuben* (zenuen), *ziñubien* (zenuten).

<sup>90</sup> Bokal arteko dardarkariaren galera eta V<sub>1</sub>V<sub>2</sub> > V<sub>1</sub>V<sub>1</sub> da honen bilakabidea.

<sup>91</sup> Asimilazio atzerakaria.

<sup>92</sup> *au/leu* da NN<sub>K</sub> erako laguntzailearen erroa.

<sup>93</sup> Prolatiboa erabili beharko litzateke kasu honetan, eta Sakana erdialde osoan *-tako*, eta ez *-tzat*, da bere morfema.

- eta dago obliqueturic vere serbicio sandure.*  
*G. Ceñ da Cristauberen siñelie?*  
*E. Guruce sandube.*  
*G. Cergati?*  
*E. Cergati den Cristo Crucifiquetuberen figure, ceñetan erredimiyu baizuen mundube.*  
*G. Cenbat modus eguiyen du Cristaubec siñeliori?*  
*E. Bietara.*  
*G. Ceñ dire?*  
*E. Ciñetzie eta santiguacie.*  
*G. Cer da ciñecie?*  
*E. Escubico viez aundiyeriqui iru guruce eguityie, lendaiscoa becosquiyen, bigarna aguan, irugarna pechoan mincen garela Jaungoyco gure Jaunerequin.*
- G. Ya nola iyen duzun?*  
*E. Guruce sanduberen sine lie gati + gure etsaiyetati libra gachazu gure Jaune eta Jaungoycoa.*  
*G. Cergati ciñecen zara becosqui-yen?*  
*E. Libraciegati Jaungoycoac pensa-mentu gaiztotati.*  
*G. Cergati aguan?*  
*E. Libraciegatic Jaungoycuac itz gaizto guzietatic.*  
*G. Cergati pechoan?*  
*E. Libraciegati Jaungoycuac obra eta desejo gaiztotati.*
- bizio santuee ofrezittuik doona.  
 G. Zein da kristaubaan señelie?  
 E. Guutze santube.  
 G. Zengati?  
 E. Zengati dan Kristo kruzifiketubaan figure, guutzien redimittu beizuugun.  
 G. Zenbat moduten eitten dau kristaubek señeliori?  
 E. Biten.  
 G. Zein die?  
 E. Siñetzie ta santiguetzie.  
 G. Ze gauze da siñetzie?  
 E. Iru guutze eittie eskubiko eskuko lenbiziko bietzaaki, lebizikue kopetan, bigerna aguen, irugerna petxuen, Jangoiko guu Jaunaaki itzeitten diaula.
- G. Iye nola eitten dezun?  
 E. Guutze santubaan señeliengati guu etsaiyengandi libra gaitzazu guu Jaun da Jangoikue.  
 G. Zengati siñetzen zaa kopetan?  
 E. Jangoikuek pensamentu geistotati libretzietis.  
 G. Zengati aguen?  
 E. Jangoikuek itz geiztotati libretzietis.  
 G. Zengati petxuen?  
 E. Jangoikuek obra ta deseju geiztotati libretzietis.
- gon*<sup>94</sup> *ofrecituric aren servi ciyo santura.*  
*G. Ceñ da cristauaren señalia?*  
*E. Gurutze santuba.*  
*G. Cergatic?*  
*E. Cergatic dan Cristo gurutzificatubaren figura, bada*<sup>95</sup> *gurutzian redimitu guinducen.*  
*G. Cembat modutan eguiten*<sup>96</sup> *du cristauac senale ori?*  
*E. Bitan.*  
*G. Ceñ dira?*  
*E. Ciñatzia ta santiguatzia.*  
*G. Cer gauza da ciñatzia?*  
*E. Eguitia iru gurutze escuico*<sup>97</sup> *escuco lembicico biatzarequi, lembicicua becosquiyen*<sup>98</sup>, *bigarrena aoan*<sup>99</sup>, *irugarrena bularretan, itz eguiten degula*<sup>100</sup> *Jangoiko gure Jaunarequi.*  
*G. Ya nola eguiten*<sup>101</sup> *dezun?*  
*E. Gurutze santubaren señalia gatic gure etsyetatic libra gaitzazu gure Jauna ta Jangoicua.*  
*G. Cergatic ciñatzen cera becosquiyen?*  
*E. Libratzia gatic*<sup>102</sup> *Jangoicuc pensamentu gaiztotatic.*  
*G. Cergatic aoan?*  
*E. Libratzia gatic Jangoicuc itz gaiztotatic.*  
*G. Cergatic bularretan*<sup>103</sup> *?*  
*E. Libratzia gatic Jangoicuc obra ta deseju gaiztotatic.*

<sup>94</sup> 'Egon' aditzaren hirugarren pertsona singularra *doo* da Etxarrin: *dago* > \**dao* > *doo*. Bukaerako *-n* hori erlatiboaren marka da.

<sup>95</sup> Kausazko partikula nagusiak ditugu Sakana erdialdean *bait-* eta *eta*, ez hemen agertzen den *ba-da*.

<sup>96</sup> Bokal arteko belare herskari ahostunaren galera eta hortzetako herskari ahoskabearen sabaikaripena gertatzen da etxarrieran. Uhartekoan gutxienez bigarren gertaera izan dute kontuan: *eguiyen* (egitten).

<sup>97</sup> *Eskubi* eta ez *eskuin* erabiltzen da esparru osoan, Uharteko bertsiotan ere hala ikus daitekeelarik: *ezcubico viez* ...

<sup>98</sup> Ez da *beko(s)ki* hitza Sakana erdialde osoan erabiltzen, *kopeta* baizik.

<sup>99</sup> Garai bateko asperenketaren testigantza daukagu hitz honetan, *ago* (aho). Ikusten denez, gertaera hauxe ederki izan du kontuan Uharteko dotrinaren itzultzaileak.

<sup>100</sup> Forma gipuzkeratua hau ere, Etxarrin *diaula* < *diagu(la)* ?

<sup>101</sup> Bokal arteko herskariaren galera eta hortzetakoaren bustidura falta zaizkio.

<sup>102</sup> *-t(z)iet(i)s* morfema erabiltzen da Etxarrin eta Sakana erdialdean, kausazko esaldietan.

<sup>103</sup> Ez da *bular* hitza erabiltzen esparru osoan, *petxue*, *-a* baizik.

- G. *Cer da Santiguacie?*  
 E. *Escubico bi biecequin gurucebat eguiyie, becosquiti asi eta pecho-raiño, eta ezquerreco sorbaldati escubicoraño nombracen dugule Trintate santisimua.*
- G. *Ya nola iyen duzun?*  
 E. *Aiteren eta Semieren, eta Espiritu Sanduberen ice-nien Amen.*  
 G. *Noiz eguin biau zu sine-liori?*  
 E. *Asten garenien obra onen bat eguiyen edo arquicen naicenien necesidade, tentacio edo peligroren bati-en, principalmente ogaceti gequitcien, ethetic ateracien, Elicen sarcien gati-en edatien edo lo eguiteracuan.*
- G. *Cergati ombeste aldis?*  
 E. *Cergati gure enemiguac perseguicen gaiyuen demborra eta lecu gucietan.*  
 G. *Cer enemigo dire oyec?*  
 E. *Mundube, demoniua eta araguiye.*  
 G. *Esan zazu, badu guruciec virtuteri-c etsaiyauen contra?*  
 E. *Bai, Jauna.*  
 G. *Nundi du guruciec virtuteau?*  
 E. *Cergati Jesu Cristo gure Jaunec vere eriyoce santube-requin etsaiye gurucien garaiyu zuen.*  
 G. *Guruce Sandube adoracen duzunien cer esataun-zu?*
- G. *Zer da santiguetze?*  
 E. *Guutziat eittie eskubiko eskuko bi bietzeki, kopetati asi ta petxuaño, ta ezkerreko bizkerreti eskubikuaño, Trinidade santisimuei otseitten doogula.*
- G. *Iye nola eitten dezun?*  
 E. *Aittaaen, da Semieen, da Espiritu Santubaan ize-nien. Amen.*  
 G. *Noiz ein bieu ze seña-lioi?*  
 E. *Obra onaan bat asten dan guziten, o yooten neizenien nezeseidade, tentazi-yo o peligrun betien, geyena guatzeti jaitzien, etxeti atiatzien, elizen sartzien, jatekuen da lo eitte-kuen.*
- G. *Zengati aunbeste aldis?*  
 E. *Zengati guu etseyek segitzen geittuben denbora ta lecu guziten.*  
 G. *Ze etsei die oik?*  
 E. *Mundube, infernuko etseye ta araguiye.*  
 G. *Esan zazu, badu guutziek birtudeik etseyoin kontra?*  
 E. *Bei jauna.*  
 G. *Nundi dau guutziek bir-tudioi?*  
 E. *Zengati Jesukristok guutzien etseyoik bee eriotzaaki kaittu zittuben.*  
 G. *Guutze santube adora-tzen dezunien ze esaten dezu?*
- G. *Cer da santiguatzia?*  
 E. *Eguitia gurutze bat escuco escuco bi biatzaqui, becosquitic asi, ta bularretaraño, eta ezquerreco sorbaldatic<sup>104</sup> escuicoraño, deitzen degula Trinidad santisimuari.*
- G. *Ya nola eguiten dezun?*  
 E. *Aitaren, eta Semiaren, eta Espiritu Santubaren ice-nian. Amen.*  
 G. *Noiz eguin bear<sup>105</sup> dezu seña le ori?*  
 E. *Obra onen bat asitzen<sup>106</sup> dan guziyan, edo arquitzen naizenian necesidade, tentaciyo edo peligroren bati-en, printzipalmente oatzetic<sup>107</sup> gequitzian<sup>108</sup>, ethetic ateratzian, Elizan sartzian, jateracuan eta lo eguiteracuan.*  
 G. *Cergatic orrembeste al-diz?*  
 E. *Cergatic gure etsayac perseguitzen gaituen demborra ta lecu gucietan.*  
 G. *Cer etsai dira oyec?*  
 E. *Munduba, demoniyua ta araguiya.*  
 G. *Esan zazu, badu gurutzia-c virtuteri-c etsai oyec garaitzeco<sup>109</sup>?*  
 E. *Bai jauna.*  
 G. *Nundic du gurutzia-c virtute ori?*  
 E. *Ventzitzia gatic Cristoc gurutzian etsai oyec bere eriotzarequi.*  
 G. *Gurutze santuba adora-tzen dezunian cer esaten de-zu?*

<sup>104</sup> Bizkerra eta ez sorbalda erabiltzen da Sakana erdialdean.

<sup>105</sup> *b(i)er* aldaera da Etxarrikoa, eta bi burutzapen erabil daitezke kasu honetan: *ein bieu* eta *ein b(i)er dezu*.

<sup>106</sup> Ez da inoiz horrelakorik burutzen Sakana erdialdean, txistukaria + *-i-z* bukatu-riko partizipioei *-ten* morfema eransten zaie: *asten* (hasten), *ixten*, *yosten* (erosten), *ikusten*...

<sup>107</sup> *O-* + kontsonante erorkorra + *a > gua-* ematen du Sakana erdialde guztian: *guatze* (ohatze), *quartu* (ohartu), *guai* (orain).

<sup>108</sup> *-gi-*dun partizipioak: *ja(g)i*.

<sup>109</sup> Ez da *garaitu* aditza erabiltzen, horren ordez *kaittu* (kabitu) dugu, baina egokiagoa iruditu zait Uhartekoan agertzen den azaltzeko era.

*E. Adoracen zaiyut eta vediquecen zaiyut Cristo crucifcatuberen figure, ceññetan erredimiyu baiciñuen mundube.*

*Cristau dotriñaren partiec.*

*Ycusi dut cristaube zarela cristauberen icenagati eta siñneliegati: esanzadazu oraiñ: cenbat gauce dago obilgaturic cristaube jaquitera uso arrazobescora aillgacen denien?*

*E. Lau gauce.*

*G. Ceññ dire?*

*E. Jaquiyie cer siññestatu biaugun, cer oracio eguiñ biaugun cer obratu biaugun eta cer errecibiyu biaugun.*

*G. Nola jaquiñen duzu cer siññestatu biauzun?*

*E. Jaquitierequiñ credoa eta articulo fedescoac.*

*G. Nola jaquiñen duzu cer oracio eguin beazun?*

*E. Jaquitierequiñ pater nostra eta beste Elizaco oracioac.*

*G. Nola jaquiñen duzu cer obratu dear dezun?*

*E. Jaquitierequiñ Jaungoicoa-ren legueco mandamentu sandubec, Elicecoa*

*E. Adoratzen zeittut ta beriketzen zeittut, Kristo, zengati zuu guutze santubaaki redimittu ziñuben mundube.*

*Kristaubaan dotriñaan partiek.*

*Ikus det kristaube zaala kristaubaan izenangati ta señneliangati; esan zazu guai, zenbat gauz doo obilgetuik kristaube jakitia arrazoisiko usue izetia allaatzen danien?*

*E. Lau gauz.*

*G. Zein die?*

*E. Jakittie ze siññestetu ber diaun, ze oraziyo ein ber diaun, ze obratu ber diaun ta ze rezibittu ber diaun.*

*G. Nola jakiñen dezu ze siññestetu ber dan?*

*E. Jakittieki kredue ta fedesko artikuluek.*

*G. Nola jakiñen dezu ze oraziyo ein ber dan?*

*E. Jakittieki Aitte Gurie ta Elizeko beste oraziyeuk.*

*G. Nola jakiñen dezu ze obratu ber dan?*

*E. Jakittieki Jangoikuen legeko mandamentubek, Elize Ama Santaanak eta*

*E. Adoratzen eta bedicatzzen zaitut, Cristo, cergatic zure gurutze santubarequi redimitu cinduan<sup>110</sup> munduba.*

*Cristau dotrinaren particyua.*

*Ycus<sup>111</sup> det cristaua cerala<sup>112</sup> cristauaren icena gatic eta señalia gatic; esan zazu orain<sup>113</sup>, cembat gauza<sup>114</sup> dago<sup>115</sup> obligaturic cristau jaquitera uso arrazoyescua izatera allegatzen<sup>116</sup> danian?*

*E. Lau gauza.*

*G. Ceññ dira?*

*E. Jaquitia cer<sup>117</sup> siññestatu bear<sup>118</sup> duen, cer oraziyo eguin bear duen, cer obratu bear duen, eta cer recibitu bear duen.*

*G. Nola jaquiñen dezu cer siññestatu bear dan?*

*E. Jaquiñarequin Credua ta articulo fedescua.*

*G. Nola jaquiñen dezu cer oraziyo eguin bear dan?*

*E. Jaquiñarequin<sup>119</sup> aita guria, eta beste Elizaco oraziyuac.*

*G. Nola jaquiñen dezu cer obratu bear dan?*

*E. Jaquiñarequin Jangoicuaren legueco mandamentubac Eliza ama santare-*

<sup>110</sup> *Giñuben, ziñuben, ziñubien...* ditugu NN<sub>k</sub> erako formak Etxarrin, asimilazio aterakaria gauzatzen delarik, eta ez inola ere, *-ind-* motatako formak.

<sup>111</sup> Partizipioetako *-i* bokalaren sinkopa gauzatu gabe ageri da: *ikus det, ekar det, etor neiz...* ohi-koak ditugu Sakana erdialdeko hizker(et)an.

<sup>112</sup> Berriro ere, aditz forma gipuzkeratua jarri dute. Etxarrieran, *zaa + -la > zaala* erabiltzen da.

<sup>113</sup> Gogoratu 95. oharrean genioena, hasierako *o C a-* taldeak *gua-* ematen duela: *guai, quartu, guatze...*

<sup>114</sup> *-a* organikoaren galera gertatzen da hitz honen kasuan Etxarriko hizkeran.

<sup>115</sup> Bokalen arteko belare herskari ahostunaren galera eta  $V_1V_2 > V_2$  burutzapena falta zaizkio: *dago > \*dao > doo.*

<sup>116</sup> Aurreko ohartxoaren burutzapen berberak falta zaizkio: *allegatzen > \*alleatzen > allaatzen.*

<sup>117</sup> Galdetzaileren bukaerako dardarkaria galdu egiten da Etxarrin.

<sup>118</sup> Monosilabikoa bihurtu da aditz hau etxarrieran, eta bi burutzapen edo bilakabide izan ditu: *ber, V<sub>1</sub>V<sub>2</sub> > V<sub>1</sub>V<sub>1</sub> > V<sub>1</sub>*; eta *bier, ea > ie* dismilazioarena. Aditza denean, normalean, lehena erabiltzen da, eta izena edo izenondoa denean, berriz, bigarrena: *Guuki etor berko zaa!*, *Etxia fan ber gaa!*; baina baita *Zuu launtze bier dau!*; *bierrik, bierreskue...*

<sup>119</sup> *-ttiiki/-tzieki (-t(z)earekin)* nominalizazioa erabiltzen da eta ez *-arekin*.

<i>eta obra misericordiescoac.</i>	miserikordiesko obrak.	<i>nac, eta obra misericordiezcuac.</i>
<i>G. Nola jaquiñen duzu cer errecibiyu bier duzun?</i>	G. Nola jakiñen dezu ze rezibittu ber dan?	<i>G. Nola jaquiñen dezu cer recibitu bear dan?</i>
<i>E. Jaquieterequin Eliceo zazpi sacramentu sandubec.</i>	E. Jakittieki Elize ama Santaan sakramentubek.	<i>E. Jaquiñarequin Eliza ama santaren sacramentubac.</i>

## 5. ETXARRIKO DOTRINAREN IRUZKIN-LABURPENA

Honaino, beraz, Etxarriko dotrinako lehen sei orrialdeetako hizkuntza gertaerarik aipagarrienak. Hemendik aurrerakoa, laburbildurik emango dut jarraian, baina hizkuntza arloak bereizi gabe, hots, orain arte aipatu ez diren gertaerak agertu ahala jasoko ditut:

- $z + z > z$  etxarrieraren burutzapena bada ere, dotrinan afrikatuaren alde neutralizatua agertzen da: *etzan jayo* (2966), *kontzebittu*, *Pontzio* (2960), *entzerratzen* (2961), *printzipalmente* (2963)...
- $NN_I$  erako aditz laguntzailea *-ki-* errorik gabe agertzen da maiz: *conveni zaiguna* (2970), *eraguzten zayote* (2977), *cer izanen zayo*, *erraz barcatzen zayon* (2982), *barcatzen zayo*, *eguitia izanen zayo*, *acordatzten bazayo* (2983), *eguitia conveni zayote*, *emateco conveni bazayo* (2984).
- Eduki aditzaren forma sintetikotan, au diptongoa mantentzen du dotrinak: *norc dauca*, *arrazoyescua dauquien*, ... (2976). Etxarrieran diptongorik gabeko formak ditugu: *dakat*, *dakak/n*, *daka*, *dakau*, *dakazu*, *dakazubie*, *dakabie*, *nakan* (neukan), *giñuken* (geneukan)...
- Ahalerako Nor erako laguntzailean, berriz, ai diptongoa mantentzen da itxi gabe eta ez da hortzetakoaren bustidurarik gauzatzen: *daitique*, ... (2976). Etxarriko hizkeran *ne(i)tteke*, *e(i)tteke*, *de(i)tteke*, ... dira erabiltzen diren aditz formak.
- Aditzen pluraleko hirugarren pertsonaren ezaugarritzat *-te* erabiltzen da dotrinan zehar, eta ez *-bie*, beharko lukeen moduan: *eztute mereci* (2978), *escogitzen dutenac* (2988), *garbiya dutenak*, *Nai eztutenac*, *Gorrotiñik eztutenac* (2989).
- *-t*, singularreko lehen pertsonaren ezaugarria, ez da inoiz *-da-* bihurtzen etxarrieran, bai ordea dotrinan: *eguin dudan becatu* (2991).
- Objektu plurala duten  $NN_K$  erako aditz forma aferesidunak (*ttut*, *ttuk/n*, *ttu*, *ttuu*, *ttuzu*, *ttuzubie*, *ttubie* aditz formak erabiltzen dira gaur egun) ez dira ageri dotrinan: *eguiten dituen obra* (2978), *eguin dituen obra*, *eguin dituen falta* (2992).
- Pluraleko lehen eta bigarren graduko erakusleen sinkretismoa ez da gauzatzen: *auec* (2979), *aui* (2990). Etxarrieran eta lehen bi graduetan erakusle berberak erabiltzen dira, *oik* (hauek, horiek), *oiri* (hauei, horiei), *oindako* (hauendako, horiendako), ...
- Belare herskari ahoskabearen aldeko neutralizazioa ageri da 'kendu' aditzaren kasuan dotrina osoan zehar, etxarrieran ahostuna edo igurz-kari ahoskabearen alde egiten denean: *quentzeco aleguiña* (2974), *Ez quentzia* (2975). Etxarrieran: *genduljendu*.

- Galdetzaile gehienak *-r*-dunak ageri dira dotrinan, etxarrieran ia beti galtzen delarik dardarkaria (*nok, ze, zengati, zetako...*): *Norc dauka* (2976), *Eta cer gauza, Cergatic erraz* (2982), *Certaco da* (2983).
- *o > au* burutzapena (egungo etxarrieran *aungi, auntzi...*) ere ez da gauzatzen: *Ongui izanen* (2982), *Ongui diyozu* (2990).
- Lexikoari dagokionez, etxarrieran beste era batera erabiltzen diren zenbait hitz ageri dira: *iduiqui (urai)* (2981), *larru gorriyan (bilixkorriko)* (2977), *aunitz (asko)* (2973), *becosqui (kopeta), sorbalda (bizkerra)* (2963)...

### 5.1. Esteban Zabalaren itzulpena

Esaten nuen artikuluaeren hasieran badela dotrina honen beste bertsio edo eskuizkribu bat, ‘Traducción original de de Echarri-Aranaz por D. Esteban Zabala’ jartzen duena bere lehen orrialdean. Norbaitek ‘*Ynutil por su confusion y poca solidez*’ idatzi du bertan. Aztertu dudana testu berbera du, baina hala ere, soma daitezke zenbait aldaketa, eta hauek kontuan izanik, esan dezaket, maila urrian bada ere, zenbait kasutan hurbiltzen dela Etxarriko hizkerara, nahiz eta dotrinaren edizioa (BOE, Gipuzkera 5, Euskal Ikaskuntzen Insitututua, 2958) aurkezterakoan esaten den moduan, egia izan ‘*ez dagoela arau tinko eta beti mantenitzen denik ez batean eta ez bestean, txandaketak ugari direlarik?*’

- Ageri da, noiz behinka baino ez bada ere, *i* eta *u* ondoko bokal asimilazioa: *infarnuetara (infarnubetara, bestean), gracie (graciya, bestean), glorie (gloriya), infarnu (infarnu), dire (dira), garizimaco (garizumaco), guciei (guciyai)*...
- (*l, n, r*) ondoko iguzkariaren aldeko joera: *alcanzacia, onza (ontza), conciencia (contzientziya), indulgencia (indulgentziya)*...
- Zenbait laburdura, lexema barruan nola sandhi-etan: *bela (berla, berehala), santuat (santu bat)*...
- Hirugarren pertsona pluraleko ezaugarria, *-bie: eztube (eztute)*...
- Eduki aditzaren formen monoptongaketa: *dazcanari (dauzcanari)*...
- *on- ez* bukaturiko maileguak: *dona (doya)*...
- *g-* hasierakoa, *-oa-* taldearekin: *guacera (oatzera)*...
- *ai > ei* diptongo itxiera: *nei (nai, nahi)*...

## 6. UHARTEKO DOTRINA: SAKANA ERDIALDEKO HIZKERAREKIKO KIDETASUNAK

Uhartekoan, aldiz, lehen esan dugun bezala, etengabe ageri dira bertako hizkeraren ezaugarriak, baina ez hori bakarrik, Etxarriko hizkerarekin berearekin ere antza nabaria du, urte askotan zehar bertakotzat (Etxarrikotzat esan nahi da) aurkeztua izan den dotrinak baino askoz ere gehiago, dudarik gabe. Zehazki ezagutu nahi dituenak, J.M. ARAKAMA-k egindako lana (Uhartearakilgo dotrina, ASJU XXVIII-2, 1994, 569-588) ikus dezake, eta guk hemen aipatu ezaugarri horietariko batzu soilik azalduko ditugu:

- hitz bukaerako *-u/-i* bokalen ondoko epentesien agerpen ia sistemati-koa (*bedicatube, araguiyaren, gaubien, becatube, condenatuben, infarnube, etsaiye, viciyec...*).

- *-ea > -ie* bokal taldearen disimilazioa (*borondatie, gurie, amacie, viez, bier, lucien, viyocien, golpie...*).
- asimilazioak (*vediquecen, Elice, dire, moduten, damutasune, aunditasune, icaragarri bet, berri bet...*).
- diptongoen burutzapenak: *au > u, o > au* (*barutu, aungui...*).
- sinkopak (*bigarna, irugarna, bedracigarna, ontan, ortan...*).
- aferesiak (*tyu, zozu...*).
- *j/ftx*andaketa, behin bakarrik bada ere (*faten*).
- *ig-* > *iy-* bilakaera (*ityendetan*).
- */t/* hortzetako herskari ahoskabearen bustidura (*baityen, tyuenac, tyuen, cumplityuric...*).
- *-s* instrumentalean (*deyes, negarres, egunerusco...*).
- *n*-ren ondorengo igurzkariaren aldeko neutralizazioa (*pensatu, pensamentu, onza...*).
- */h/* antzinako aspirazioaren aztarna (*agoti, ogaceti...*).
- *baitan* partikularen erabilera norengan kasuan (*deseiyecen duenaren baitan, criadorearen baiyen...*).
- *arrec, arren, arrequi* bezalako erakusleak.
- NN<sub>K</sub> erako aditz forma aferesidunak (*tyuenac, tyuen, ttu...*).
- *-i > Ø*osinkopa aditz partizipioetan (*etorco, etor cenien, icus duzu...*).
- erlatibo laburtuetako erakuntza, *-(r)ikiko* (*ofendityuriquico, emaniquico, azturiquico*).
- *bait* partikularen erabilera (*cein concebiyu baicen, ceñetan erredimiyu baizuen...*).
- *cergati ... -n/Ø*kausazko egituraren erabilera (*cergati auena den, cergati auetan dagon, cergati auec hienenen dire*)...

## 7. ARAKILGO SERMOIAK

Arakilgo sermoi hauek irakurri bezain laster, halako errotazismo aztarna-andana ikusirik (*erran, erraten, borz, verce, ainberce, berce, bercenaz...*), Baztan edo Zugarramurdi eta Urdazubiko hizkerak etorri zitzaizkidan burura berehala. Are gehiago inguru horietako beste ezaugarri fonetiko-fonologiko, morfologiko eta lexiko bereziak ere bazituela ikustean: *daduquen, aunicec, deus, auniz, asqui, ancinian, dacu, izigarriac, datzute, atariarat, elizarat, goaten, goan, yequi, gutien, yateco, conten, eri, zure graciaren escacera, bildur, amazat, corpuza, chipienarequin, yequiac, emaiten...*

Hala ere, berriro irakurri ondoren sermoietako hizkera nahiko nahasia agertzen dela ikus daiteke, gipuzkerako aditz formak eta beste ezaugarri batzuk ere ugari baitira: *dezue, degularic, guerala, degu, dezu, ceran, chimista, arrenzaco, osasunarenzaco, barrenean, degula, zeratenian, gueranean, cizayon, ongui, batetican, pensamenturican, orgatican, bigarren, dan (a + e > a)...*

Eta Satrustegik argitaraturiko artikuluaaren sarrera irakurri eta berehala jo nuen horrelako testigantzak erakusten dituzten hego-goi-nafarrerako lekukokak bilatzera, Arakilgo euskara euskalki horren barruan izan baita kokatua sailkapen guztietan. Eta Arakilgo hizkeraz gain, honen aldameneko Sakana erdialdeko hizkerarekin ere alderatu ditut. Eta gaineratu behar dut ugari izan direla aurkitu ditudan ezaugarriak, lapurterarenak, hego-goi-nafarrerarenak eta gipuzkerarenak ere bai, ondorengo lerrootan ikus daitekeen moduan.



## 7.1. Arakil eta Sakana erdialdeko hizkeretikiko alderaketa

### 7.1.1. Ezaugarri fonetiko-fonologikoak

7.1.1.1. Asimilazio aurrerakaria. Asimilazio aurrerakariaren burutzapenak oso hedatuak daude Sakana erdialde osoan, eta baita ekialderagoko herrietan ere, hots, Irañeta eta Urritzolan behinik behin. Hala gertatzen da Etxarri, Lizarraga, Lakuntza eta Uharten sistematikoki, bai hitzaren barruan nola bukaeran (*egiye, zille, egune, izendu, anime, gustetu, billetu, pusketu...*); gauza bera hitzaren barruan edo bukaeran morfema plurala eransten zaionean Arbizu, Unanu, Dorrau eta Arruazun (*egiya* baina *egiye, zilla/zillek, eguna/egunek, izendu, animal/animek, gustetu, billetu...*); Irañetan ere bai sistematikoki Erizkizundi Irukoitzaren emaitzak kontuan izaten baditugu (*egiye, zille, zazpiñe, litzeke, izen(du), inder, eskube, aite...*); eta azkenik, Sakanaren ekialdeko muturrean dagoen Urritzolan ere bai, 'Nafarroako Euskara'<sup>120</sup> CD-ROM-ean entzun daitekeen moduan (*aitte, maize, makinek, izendu, pusketzeko, Afriken, destinetu, billetzeko, bakuitze...*).

Bada, sermoietan ere ugari dira asimilazio aurrerakariaren aztarnak: *guciec (a3, a5, a23...), anime (a9, a14, a21, a27, a39...), mille (a15), aundie (a20), isusie (a21), Mariequin (a24), memorie (a30), entendimentue (a31), gracie (a33, a37...), desgracie (a34, a106...), diche (a50), vicie (a58), descansue (a82), liceque (a97), miserie(a111), aine (a139), misericordie (a147), paciencie (a167), glorie (a168), izen (c487)*... Askok dira, beraz, asimilaturiko burutzapenak, baina batzutan asimilatu gabeak ere ageri dira, batez ere 'izan' aditzari dagokionean: *izanen (a97, a155), hizaten (b336), izate-ra (c343), izatea (c486)*...

7.1.1.2. Asimilazio atzerakaria. Askok ez badira ere, jaso ditut asimilazio atzerakariaren aztarnak sermoietan, eta burutzapen hauexek, Sakana erdialde osoan ditugu hedaturik: *idugui (a147), iduqui (a147), invidie (a78), bildur (a97)*...

7.1.1.3. a > au diptongazioa. Bi hitz baino ez ditut jaso hiru sermoietan, baina biak behin eta berriro agertzen dira: *aunicec (a3), auniz (a42, b179...), aundien (a64), aundiagoa (a65)*... Sakana erdialdearen kasuan, bigarrena baino ez da erabiltzen, baina Arakilen biak dira ezagunak, eta lapurteran biak ere bai.

7.1.1.4. a + e > a bilakabidea. Ergoiena eta Etxarrin gertatzen den bilakabidea dugu hauexek, eta sermoietan ere aurkitu ditut horrelakoak: *dan (a22, a75, a88, a119, b182, b270, c345), dala (a37), danian (a164)*. Eta analogiaz ere: *zan (a12, b229)*.

7.1.1.5. -a organikoaren galera. Berriro ere Sakana erdialde osoan bezala, 'gauza' hitzari dagokionez bederen: *gauz (a6, a81), eliz (c340)*.

7.1.1.6. Aferesia. Sakana erdialdea, Arakil (Irizarrek<sup>121</sup> jasotako arabera) eta orokorrean Nafarroa osoko NN<sub>k</sub> erako aditz forma zenbait bezalakoak

<sup>120</sup> Mikel MELERO, Matias MUJICA (Nafarroako Euskara, Nafarroako euskalkiak multimedia bidez aurkezturik, Nafarroako Gobernua).

<sup>121</sup> 1992, Bilbo, Euskaltzaindia.

ageri dira sermoietan, lehen silaba edo bokala falta zaielarrik: *zazue* (a11, a147), *zazu* (147), *tuzue* (b220).

- 7.1.1.7. /h/-ren testigantza. Eta behin baino ez bada ere, agertzen da Sakana erdialdeko hizkeran bezala antzinako /h/-ren lekukotasuna: *agotic* (b310).
- 7.1.1.8. k/g txandaketa. ‘Kendu’ aditzaren kasuan, ez da Sakana erdialdean belare herskari ahoskabedun burutzapenik erabiltzen, eta lehenengo bi sermoietan ere, horrela ageri da: *guentuco* (a97), *guenduco* (b220), *guendua* (b310).
- 7.1.1.9. Errotazismoa. Ez da Sakana erdialde osoan errotazismoaren burutzapenik ageri, baina bai Uharte-Irañetatik ekialdera (*ortzegun* eta *ortzilere* jaso zituen Echaidek<sup>122</sup> Irañetan eta *ortzilare* Uharten; *esan/erran* jaso zituen, bestalde, aipatu ikerlariak 1989an Murginduetan; nik neuk ere jaso dut horrelako burutzapen bat Uharten, *ortots*, baina hauxe izan da bakarra, beste burutzapenak galdetu baditut ere), eta hiru sermoietan barra-barra ageri dira errotazismoaren burutzapenak, baina hauek hurrengo puntuan landuko ditugu, hego-goï-nafarrerarekin alderatzen ditudanean.

### 7.1.2. Ezaugarri morfologikoak eta lexikoaren ingurukoak

- 7.1.2.1. Soziatibo kasuko morfemaren bukaerako sudurkariaren galera. Sakana erdialde osoan bezala, soziatiboan bukaerako –n galdu egiten da kasu batean baino ez bada ere: *batequi* (a109).
- 7.1.2.2. Instrumentalaren kasu marka –s da, hots, hortzobietako igurzari ahoskabearen orde z bizkarhobietakoa erabiltzen da hiru sermoietan, Sakana erdialdea, Arakil eta Nafarroako hizkera gehienetan bezala (Nafarroako euskara, Urritzola: *bi illebetes*, *iru illebetes*, *illebeteates*, *illete terdis*, *zorris*, *goizes*): *consequiceas* (a50), *gozos* (a75), *graciescoan* (a117), *animas* (a126, a147), *medios* (a154), *compasiones* (b235), *urtes* (b251), *millaldis* (c345), *ustes* (c369)... Lapurteran ere oso erabilia da, Sararen inguruan behintzat: *arceko partes*, *eskribatuas*, *frantzeses*, *etorris geos*, *eskuaras*...
- 7.1.2.3. arren eta honen moduko erakusleen erabilera. Hau ere Sakana erdialdea eta Arakilez gain, Nafarroako hizkera gehienetako burutzapena dugu, eta maiz agertzen da sermoietan: *arren* (a46, a49, a69, a95, b223, b259, b300, b305, b309, c359), *arretatic* (c419), *arrenzaco* (c349).
- 7.1.2.4. Destinatibo kasuko atzizkia –tzako dugu sermoietan eta –tzat berriz prolatiboan. Sakana erdialdean eta Arakilen (horrela agertzen da Urritzolako grabaketan) –dako eta –tako ditugu, Nafarroako hizkera gehienetan bezala. Hala ere, destinatiboaren kasuan bederen, badirudi gertuago geratzen dela Sakanakotik. Hauexek dira sermoietako burutzapenak: *osasurenzenaco* (b225), *arrenzaco* (c349), *onenzaco* (c554), *amazat* (c375, c432, c470).
- 7.1.2.5. -en morfemaz buruturiko formak agertzen dira behin eta berriro sermoietan etorkizuneko aspektua adierazi nahi denean, ia Nafarroa osoa eta lapurteran bezala, Sakana erdialdea eta Arakilgo hizkeren kasuak barne direlarrik: *izanen* (a97, a155), *emanen* (b239, b242), *eranzunen* (b280).

<sup>122</sup> 1984.

- 7.1.2.6. Aditz formei dagokienez, esan daiteke hiru sermoietan agertzen diren gehienak, gipuzkeraren kutsukoak direla, baina beste batzuk hego-goi-nafarrerakoen modukoak, eta azken bederatzia Baztan aldekoak eta baita lapurteraren kutsukoak ere, hurrengo azalpenetan ikus dezakegun moduan: *dezu* (a149, a152), *dezue* (a7, a117, a118, a119), *degu* (a62, a78), *degularic* (a24), *guerán* (a16), *gueralá* (a46), *cerán* (a160), *zeratenian* (b319), *gueranean* (b336); *cere* (c366), *tuzue* (b220), *dazute* (b226, b322), *dacu* (b171), *dazut* (b242), *cinuten* (b257), *ciñuten* (b258), *ciñuan* (c385), *daduquen* (a2), *ceducan* (c469), *zeducan* (c471). Eta behin baino ez bada ere, agertzen da aditz-oina disimilaturik, *emaiten* (c511), lapurterako beste hainbat kasutan bezala (*hitz-eman du joaitea*, EDH, 304; *ezituk ni bezin asto izain*, (EDH, 311).
- 7.1.2.7. Zuek pertsonaren ezaugarria *-zte* da sermoietako hainbat aditz formetan (*zadazte* a22, *zaizaztela* c385), eta antzekoak ageri dira Irizarrek<sup>123</sup> Urritzolan jasotako formetan (*deezte*, *duzte*, *diuzte*, *ttuzte*, *diezte*, *diozte*, *diguzte*...). Sakana erdialdean, aldiz, *-zub(i)e* dugu kasu gehienetan.
- 7.1.2.8. Bestalde, lapurterako formak dira *daduka* (EDH, 288), *zedukan*, *dadukan* (EDH, 298), *zinuen*, *zinuten* (EDH, 295), *dautzut* (dizut), *dautzu* (dizu), *dautzute* (dizute)... eta antza handiegia nabari zaie aurreko azken hirurekin.
- 7.1.2.9. Gutxi badira ere, jaso ditut sermoietan Sakana erdialdean erabiltzen diren zenbait hitz: *artio* (a16), *guce* (a3, a5...), *bildur* (a97), *leitu* (a57), *macurra* (b229), *maiz* (b286), *obequi* (a3). Askoz gehiago jaso ditut, Arakildik hasi eta Nafarroako ipar-ekialderuntz eginez, lapurteraren eremuan bereziki, erabiltzen direnak: *auniz* (a90), *erran* (a20), *deus* (a27), *borz* (a30), *asqui* (a150), *verce* (a159), *izigarriac* (b190), *yequi* (b244), *anciñian* (b259), *conten* (b300), *gutien* (b261), *chipienarequin* (c435), *goan* (b232, b233). Azken aditz hau, ‘joan’, soilik lapurteran (Zugarramurdi eta Urdazubin ere bai, beraz) erabiltzen da, eta *artio* zein *obeki* edo *bildur* bera ere, ikus daitezke Sarako testu batean (EDH, 310-312). Eta azkenik, bada kasu bat gutxienez, Sakana, Arakil eta hego-goi-nafarreratik aldentzen dena, gipuzkerara edo lapurterara (*ximista*), berriro, hurbiltzeko lexi-koari dagokion neurrian: *chimista* (a165).

## 7.2. Arakilgo sermoiak eta hego goi-nafarreraren arteko alderaketa

Ezagunak ditugu dagoeneko sermoiek erakusten dizkiguten hainbat eta hainbat ezaugarri fonetiko-fonologiko, morfologiko eta lexikoaren arloetakoak, Sakana erdialdeko hizkerarekin alderatzen nituenean ikus ahal izan dugun moduan. Baina horietako gehienak ez dira soilik aipatu hizkeraren ezaugarriak, eta hego-goi-nafarrerako testuetan maiz ageri zaizkigu, beste esparru batzuetako hizkeretako ezaugarriekin batera. Eta hauetaz guztietaz arduratuko naiz, hain zuzen, hurrengo lerrootan.

### 7.2.1. Ezaugarri fonetiko-fonologikoak

- 7.2.1.1. Asimilazio aurrerakaria. Ikusi ditugu aurreko atalean sermoietako burutzapenak (*guciec*, *anime*, *mille*, *aundie*, *isusie*, *Mariequin*, *memorie*,

<sup>123</sup> 1992, Euskaltzaindia, Bilbo.

*gracie...*), eta orain hego-goi-nafarrerako burutzapen ugari jasoko ditugu hemen: *izerrac, sue, illerguie, arguie, illune* (Oltza eta Goñin)<sup>124</sup>, *aite, borondate Sandue* (Makirriaingo katexima)<sup>125</sup>, *glorie, desgracietue* (Muzkiko sermoietan)<sup>126</sup>, *anime, Jaune* (Utergako katexima)<sup>127</sup>.

7.2.1.2. Asimilazio atzerakaria, edo hasierako e-ren hersketa. Arakilgo sermoietakoen (*idugui, bildur, invidie*) antzekoak ageri dira hego-goi-nafarreran: *icheti, irugui* (Utergako kateximan, Arbizu, Lakuntza eta Arruazun bezala lehen burutzapenari dagokionez), *iguzquie* (Oltza eta Goñiko 'Le Cantique des trois enfants'-en), *iruqui* (Elkano eta Garesen), *idugui* (Goñiko sermoietan).

7.2.1.3. *h/* fonemaren aztarna erakusten duten burutzapenen artean, *agotic (b310)* ikus daiteke Arakilgo bigarren sermoian, eta horrelako burutzapenak ugari dira Sakana erdialdean eta baita Erronkari, Zaraitzu eta Aezkoan. Eta hego-goi-nafarrerari dagokionez, horrelakoak jaso dituzte 'Euskal dialektologiaren hastepenak' (196) liburuan: *ago* (aho), *egun* (ahun).

7.2.1.4. Errotazismoa. Ugari dira, bai Arakilgo sermoietan (*erran, erraten, borz, verce, ainberce, bercenaz...*), nola hego-goi-nafarrerako testuetan jaso daitezkeen burutzapenak: *raten* (Utergako kateximan), *bertze, erran* (Elkano, Gares, Oltza eta Goñin Bonaparteren zerrendetan), *bortz, borz* (Moutard-ek Iragin), *ortzegun* (Ollo, Nabaz, Iragi, Osteriz, Arrieta eta Oroz-Betelun Erizkizundi Irukoitzan ageri denez)... Baina askoz ere mai-zago agertzen dira lapurteran horrelako burutzapenak: *erran, bertze, bortz, ortzilara, ortzegun...*

7.2.1.5. Belare herskari ahoskabearen aldeko burutzapena behin gutxienez ematen da sermoietan (*corpuz, a80*), eta gauza bera aurki daiteke Utergako kateximan.

7.2.1.6. Sabaiko igurzkarri ahostunaren alde gertatzen dira burutzapenik gehienak, bai Arakilgo sermoietan (*yaten b224, yequi, yequicen b243, yarriric c363, yendeac b255*), bai hego-goi-nafarrerako zenbait testuetan: *yaiki, yokatu, yan, yeici, yauci* (Iragi); *yan, yas, yostaketa* (Lintzoinen).

7.2.1.7. Sinkopa. Ez da ematen ez Arakilgo sermoietan, ez Elkano eta Utergako testuetan ere, zenbatzaile ordinalai dagokienez bederen: *laurgarren* (Elkanoko Lizarraga), *vigarren* (Utergako katexima).

7.2.1.8. Aferesia. Aipatu ditut aurreko atalean horrelako burutzapenik aipagarrienak, eta hauek ere ohikoak ditugu Goñin esate baterako: *etzazule, zazule, etzazquizule, intzezule* (EDH, 249).

## 7.2.2. Ezaugarri morfologiko, sintaktiko eta lexikoak

7.2.2.1. Oso hedatua agertzen da hego-goi-nafarreran<sup>128</sup> sozietibo kasuko morfemaren bukaerako sudurkariaren galera, Arakilgo sermoietako zenbait burutzapenen antzera: *eneki, zureki, gizoneki, gizonareki, gizonaki ...*

<sup>124</sup> PAGOLA, Rosa Miren et alii (Euskalki literarioak, 1992, 117).

<sup>125</sup> Díez de Ulzurrun, Pedro (El catecismo manuscrito de Maquirriain de 1828, Euskera v, 1960, 377-403).

<sup>126</sup> MARTÍNEZ MORENTIN (Sermoiak, F.L.V. 15, 1973, 369-390).

<sup>127</sup> ONDARRA, Francisco (Catecismo del siglo XVIII en vascuence de Uterga, F.L.V. 35-36, 1973).

<sup>128</sup> Euskal dialektologiaren hastapenak, 1987, 203, 211).

- 7.2.2.2. Instrumentalaren kasuan, berriz, -s morfema hartzen du bizkarhobietakoaren orde: *biotces* ('Le cantique des trois enfants' Elkanok, Gares, Oltza eta Goñi), *lurres-lurras* (EDH, 212), *ustes*, *carricas carrica* (Muzkizko katexima), *guizonas*, *leguesco* (Uterga), *esneas*, *chindilas* (Elkanok, Gares), *ures*, *gaues* (Ollor, EI), *gauas* (Iragi, EI).
- 7.2.2.3. Destinatioan, -rendako morfema erabiltzen da Sakana erdialdean eta hego-goi-nafarrerako testuetan, baina ez da horrelako burutzapenik ageri Arakilgo sermoietan, -tzako (*osunarenzaco*, *arrenzaco*, *onenzaco*) baizik.
- 7.2.2.4. Prolatiboari dagokionez, Arakilgo sermoiek mendebaldeko hizkeren eredua (lapurterarena ere bai) jarraitzen dute, -tzat (*amazat*, c375, c432, c470) morfema erabiliz, Sakana erdialdea eta hego-goi-nafarreran -tako erabiltzen delarik.
- 7.2.2.5. Adlatibo kasuko burutzapenek lagundu zidaten sermoien hasierako irakurketan, lapurteraren ingurura lerratzen testu hauetako hizkera, -rat morfema agertzen baita bi aldiz gutxienez testu hauetan: *atariarat* (b230), *elizarat* (b231). Hala ere, *Donostiarat* du idatzirik Elkanoko Lizarragak (EDH, 226), eta lan bereko orrialde berean ondorengoak aipatzen dira: *arat*, *karreterarat*.
- 7.2.2.6. Euskal Herriko erdiguneko hizkeren antzera (lapurteraren<sup>129</sup> eremua ere bai), baina baita Muzkizko kateximan (*doloveriquen*) bezala, ageri zaizkigu horrelako partitiboko burutzapenak sermoietan: *deusican* (b230), *batetican* (c450), *pensamenturican* (c456), *orgatican* (c491).
- 7.2.2.7. -one<sup>130</sup> bukaeradun maileguak berean mantentzen dira hiru sermoietan, lapurteraren antzera, Zugarramurdiko testuetan ikus daitekeen moduan: *tentacioneac* (b184), *salvacionea* (b185), *compasiones* (b235), *habitacione* (c363), *religione* (c342)... Hego-goi-nafarreran -one > -io izan da bilakabidea, eta Sakana erdialdean, aldiz, *one* > -io > -iuela > -iyuela (i + V > i y V: *mendiyela*, *erriyela*): *tentaziyuela*, *salbaziyuela*, *konpasiyuela*, *abitaziyuela*, *reliziyuela*...
- 7.2.2.8. Etorkizuneko aditz formetan -en erabiltzen dela ikusi dugu aurreko atalean, eta horrelako burutzapenak erabiltzen ditu Elkanoko Lizarragak ere: *izanen* (EDH, 251).
- 7.2.2.9. Lapurterako testua bailitz, hara non ageri zaigun objektua genitibotan Arakilgo bigarren sermoien bukaera aldera (*zure graciaren escacera*, b325), baina egitura hau ez da ezezaguna Uterga, Makirriain, Goñi eta Elkanoko testuetan: *onen juzguecera*, *anime justoen rescatacera*, *gracia baten escatzera*, *ogian jatea* (EDH, 248).
- 7.2.2.10. Denborazko esaldietako -(e)larik atzizkia ageri da kasu batean gutxiarik Arakilgo sermoietan (*degularic*, b197), eta morfema hauxe ikus

<sup>129</sup> ZUAZO, Koldo (1998, F.L.V. 78, 198): "(5) -(r)ikan, ... tankerako aldaerak L-n eta NB-n badi-ra...".

<sup>130</sup> Euskaltzaindiaren arauak, 1994, 35: "Euskarak latinetik eta latin-hizkuntzetatik harturiko maileguen artean -tione atzizkiak axola berezia du, (...) ...; -zio gipuzkeraz, goi-nafarreraz, eta Aezkoa eta Zaraitzuko hizkeretan, eta -zione Iparraldeko euskalkietan, Baztanen (baita ere -zio, Echeniquek bederen) eta Erronkarin. Azken hogeita bost urteetan euskara batuaren eraginez horietako bi aldaera dira ia erabat gailendu direnak: -zio Hegoaldean eta -zione Iparraldean. (Euskaltzaindiak, Bilbon, 1994ko azaroaren 25ean onartuta).

daiteke Muzkiz kateximan (*munduontan vicicelaric*) eta Elkanoko Lizarragarengan (*elducirelaic, nindegolaic*). Lapurteran ere oso erabilia da. 7.2.2.11. Eta azkenik, lexikoaren atalera iritsiz, ikus daiteke hego-goi-nafarreran ezagunak diren hainbat hitz erabiltzen dituela sermoien egileak, hala nola: *deus* (Elkano, Oltza, Gares, Goñi), *guti* (Lintzoain), *conten* (Muzkiz), *eri* (Uterga). Eta guztiak, beste behin, lapurteran erabiliak.

### 7.3. Ondorioak

Oso zaila da sermoietako hizkeraren gainean hipotesiren bat luzatzea, ikusita hauei darien ezaugarri aniztasun eta kopuru handia, baina hauek pilatzen edo metatzen hasiko bagina, besteen gainetik lapurterarenak gailenduko liratekeela ikusiko genuke (errotazismoa sistematikoki; lexikoan *deus, anitz, aski, antzinean, eri, bildur, izigarri, tximista, goan, conten, guti, ttipi, yeki...*; zenbait aditz-forma: *daduquen, dacu, dazut, cinuten, ciñuten, dazute, ciñuan, ceducan, zeducan...*; beste zenbait ezaugarri morfologiko zein sintaxi mailako: *deusican, amazat, elizarat, degularic, zure graciaren escacera...*), hori bai, ahaztu gabe horietako asko ere hego-goi-nafarrerako testuetan maiz agertzen zaizkigula eta, era berean, Arakilgo hizkera euskalki horretakoa izanik, logikoa da horrelako zenbait ezaugarriekin ere agertzea. Hala ere, hauek ez zaizkit nahikoak iruditzen sermoiak arakileran idatzita daudela esateko. Gainera Zugarramurdiko zenbait testu<sup>131</sup> aztertuz, ezaugarri beretsuak (guztiak Arakilgo sermoietan ageri zaizkigunak) aurkitu ditut: *-rat* morfema kasu adlatiboan (*ibiltzerat, anciñerat...*), */j/* fonema sabaikariaren aldeko burutzapenak (*yotcen, yoac, yarzen, yarrita...*), asimilazio atzerakaria (*iduquitzen, bildur...*), *-en -t(z)era* moduko egiturak (*Yaungoicuaren icustera, equen irabaztera...*), NNN erako aditz formak (*dacu, dazcun, dacun...*), *-larik* morfema (*ciotelaric, delaric...*), *-one* bukaeradun maileguak (*satisfaccionea, absolucione...*), *gueren* izenordea, lexikoa (*goan, erran, berze, guti, irri, eri, icigarriac, anitz...*). Eta horrela ikusirik azterketaren ondorioa, ondorengo hipotesia menturatzera ausartu naiz: sermoilaria jatorriz Zugarramurdi edo Urdazubikoa izan zitekeen, eta Arakilen edo hego-goi-nafarreraren eremuan apaiz lanetan izanik, bertako bizilagunentzat prestatutako sermoiak genituzke, igorlearen eta hartzaileen hizkerara egokiturik. Hortik Satrustegi jaunak<sup>132</sup> aipatzen duen aditz laguntzailearen formatako bikoiztasun orekatua (*duzul/dezu, duzuel/dezue, dugul/degu, garelgera, den/dan, ziren/ziran...*), eta honetaz gain, asimilazio aurrerakariaren burutzapen sistematikoak, *arren* erakuslearen erabilera, *a + e > a* moduko burutzapenak, eta *ea > ie* disimilazioak ere hor ditugu. Beste kontu bat litzateke zehaztea zergatik agertu diren Arruazun sermoi hauek.

### BIBLIOGRAFIA

ARAKAMA, Josemari: *Uharte-Arakilgo dotrina*, ASJU-ren gehigarriak, 28-2 zb., 1994.  
 DEUSTUKO UNIBERTSITATEA: *Bonaparte ondareko eskuizkribuak*, Gipuzkera 5, 1993, 2957-2993; Iparraldeko Goi-Nafarrera 2, 1995, 600-633).

<sup>131</sup> SATRUSTEGI, J.M.: *Textos dialectales de documentos religiosos vascos: 1. Lesaca. 2. Zugarramurdi*, FL.V. 48, 1986.

<sup>132</sup> 1999, FL.V. 81, 344-345.

- DIEZ DE ULZURRUN, Pedro: *El catecismo manuscrito de Maquirriain de 1828*, Euskera v, 1960, 377-403.
- ERDOZIA, Jose Luis: *Bitoriano Huiziren "Manual de Gramática Bascongada"*, FLV 82, 523-533. 1999.
- ERDOZIA, Jose Luis: *Erizkizundi Irukoitzea Sakana erdialdean*, FLV 83, 53-72. 2000.
- GAMINDE, Iñaki: *Aditz Etikoa*, AEK, 1984.
- *Aditza: Ipar Goi Nafarreraz*, UEU, 1985.
- HUALDE, J.I.: *Basque Phonology*, 1991.
- INZA, Dámaso: *Napa' roko aditz-laguntzalea zuketazko esakeran*, Euskera II-III, 1920-1921.
- IRIZAR, Pedro: *Morfología del verbo auxiliar guipuzcoano*, Euskaltzaindia, 1991.
- *Morfología del verbo auxiliar alto navarro meridional*, G.N. y Euskaltzaindia, 1992.
- KARASATORRE, R; ERDOZIA, J.L.; ULAIAR, E.: *Etxarri-Aranatzko euskara eta Arañaz Elkarteko hiztegia*, Altaffaylla, 1991.
- KARASATORRE, Rafael: *Barranca-Burunda*, 1993.
- MITXELENA, Koldo: *Fonética Histórica Vasca*, ASJU-ren gehigarriak, 1985.
- MARTINEZ MORENTIN: *Sermoiak*, F.L.V. 15, 1973, 369-390.
- MELERO, M.; MUGICA, M.: *Nafarroako euskara*, CD-ROM, 1997.
- NAFARROAKO GOBERNUA: *Nafarroako euskaldunen mintzoak I-II*, Euskalerria Irratia, 1990.
- ONDARRA, Francisco: *Catecismo del siglo XVIII en vascuence de Uterga*, F.L.V. 35-36, 1973).
- OÑEDERRA, L.: *Euskal Fonología. Palatalizazio asimilazioa eta hots sinbolismoa*, EHU, 1990.
- PAGOLA, Rosa Miren et alii : *Euskalki literarioak*, 1992.
- SATRUSTEGI, J.M.: *Arakil aldeko euskara*, F.L.V. 81, 343-358, 1999.
- SATRUSTEGI, J.M.: *Textos dialectales de documentos religiosos vascos*, F.L.V. 48, 1986, 289-314. UEU: *Euskal dialektologiaren hastapenak*, 1987 (EDH).
- URQUIJO, J. de: *Cartas escritas por L.L. Bonaparte a algunos de sus colaboradores*, RIEV II, 1908-1910.
- ZUAZO, Koldo: *Burundako hizkera*, ASJU, 28, 297-364, 1994.
- *Euskalkiak gaur*, F.L.V. 78, 191-234, 1998.

#### LABURPENEA.

1869an, Bonaparte Printzeak euskara zortzi euskalki eta hogeitabost azpieuskalkitan sailkatu zuen, eta sailkapen hori gauzatzeko orduan, garrantzi handia izan zuten bere laguntzaileek hizkera desberdinetan moldatu edo itzuli zizkioten dotrinek. Eta horien artean, Sakana erdialdeko bi herrietako hizkeretara itzulitako bi ditugu: Uharte-Arakilgoa eta Etxarri-Aranazkoa. Eta horietan agertutako ezaugarrien arabera, bi herrietako hizkerak erreferentziatzat hartu zituen, Uharte-Arakilgoa Ipar Goi-Nafarreraren barruko Arakilgo azpieuskalkikoa, eta Etxarrikoa Gipuzkeraren barruko Nafarroako azpieuskalkikoa, Burundakoarekin batera. Lehenak, Uhartekoak, ondo islatzen du herri horretako eta inguruko hizkera, baina bigarrenak, aldiz, ez du horrelakorik egiten, sarritan bertako hizkerako ezaugarriez ahaztu eta gipuzkerarenak erakusten dituelarik. Eta hauxe erakutsi nahi du, hain zuzen, Etxarriko dotrinari buruzko artikulua honek. Bestalde, Satrustegi euskaltzainak duela gutxi argitaratu dituen Sakana erdialdearen aldamenean dagoen Arakil haraneko sermoien azterketa dialektologikoa ere burutzen da artikulua luaren bukaeran.

#### RESUMEN.

En el año 1869, el Príncipe Bonaparte publicó un cuadro del euskara, clasificándolo en ocho dialectos y veinticinco subdialectos. En dicha clasificación tuvieron gran importancia las doctrinas traducidas a diferentes hablas, que le fueron enviadas por sus colaboradores, y entre dichas traducciones se encuentran las de Uharte-Arakil y Etxarri-Aranatz, que se convirtieron en puntos de referencia: del subdialecto de Arakil, dentro del dialecto Alto-Navarro Septentrional la primera; del subdialecto navarro, dentro del dialecto Guipuzcoano la segunda, junto con la Burunda. La primera doctrina, la de

Uharte, refleja correctamente el habla de dicha localidad, así como la de sus alrededores; pero no así la segunda, puesto que con frecuencia evita u olvida las particularidades del habla local para en su lugar servirse de formas guipuzcoanas. En la parte final del artículo se analizan los sermones del vecino valle de Araquil, publicados recientemente por D. José María Satrustegi.

#### RÉSUMÉ

En 1869, le prince Bonaparte publia un tableau de l'euskara, en le classifiant en huit dialectes et vingt-cinq sous dialectes. Dans cette classification eurent une grande importance les doctrines traduites en différents parlés, qui lui furent envoyées par ses collaborateurs, et parmi ces traductions se trouvent celles de Uharte-Arakil et d'Etzarri-Aranatz, qui se convertirent en points de référence: la première du sous dialecte d'Arakil, comprise dans le dialecte Haut Navarrais Septentrional; la seconde du sous dialecte navarrais, comprise dans le dialecte du Guipuzcoa avec la Burunda. La première doctrine, celle de Uharte, reflète correctement le parlé de cette localité ainsi que celui de ses alentours; mais pas la seconde, car elle évite ou oublie fréquemment les particularités du parlé local pour se servir à sa place de formes du Guipuzcoa. En fin d'article, sont analysés les sermons de la vallée voisine d'Araquil, récemment publiés par D. José María Satrustegi.

#### ABSTRACT

In 1869, Prince Bonaparte published a map of Euskara which classified it into eight dialects and twenty-five sub-dialects. Of great significance to this classification were the doctrines translated into different spoken languages sent to him by his assistants. Among these translations are ones from Uharte-Arakil and Etzarri-Aranatz. These then became reference points: the former for the Arakil sub-dialect, part of the Northern High-Navarran dialect; the latter, together with the Burunda doctrine, for the Navarran sub-dialect of the Guipuzcoan dialect. The first doctrine, from Uharte, is an accurate reflection of spoken language from the village and its surrounding area. The second, however, is not, often avoiding or ignoring the particularities of local speech in favour of Guipuzcoan forms. The final part of the study looks into the sermons from the neighbouring Araquil valley recently published by José María Satrustegi.